

500 pezeta.
20 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

40

Holandako
Lanbide Heziketa
gaia

Maixabel
Gaztañaga
elkarrizketa

Zumalakarregi
Museoa
gehigarria

Eraldaketaren plangintza
praktikatzan

1999ko UZTAILA

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuitu Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.
Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 36.10.48
Posta elektronikoa:
hik hasi@antza.com

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Abel
Ariznabarreta, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
ANTZA S.A.L.

Azaleko argazkia:
Ikor Kotx
(Ingurugiro Heziketa Arantzan)

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.999/VI/25

Kopurua: 3.500 ale

5 **editoriala**

6 **kronika**

8 **gaia**

Holandako Lanbide Heziketa

15 **elkarrizketa**

Maixabel Gaztañaga

21 **gehigarria**

Zumalakarregi Museoa

Historia ikasteko beste modu bat

27 **Ekarpena**

**Espainiako estatuko Hezkuntza
helbideak Interneten**

Pello Aramendi

29 **Ekarpena**

Haur Hezkuntza eta espezialistak

Alazne Ziarsolo

31 **Berriak**

35 **Praktikatzen**

Eraldaketaren plangintza

Oscar Viguera

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurrealdean arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.

hik hasik ez ditu bere gain hartzen laguntzaileek plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación

Eskura itzazu hik hasiren materialak



CD eta
Kasetak



Musika
liburuak



Euskal Herriko
Baliabide
Pedagogikoen GIDA
Irailean berritua

Harpidedunek ale
monografikoak eta
Gida dohan jasoko
dituzte.


Gainontzeko
materialetan prezio
bereziak izango
dituzte.

euskal
heziketarako
aldizkaria

Zirkuitu ibilbidea, 2. pabilioa
20160 LASARTE-ORIA. GIPUZKOA
Tel: 943 37 15 45
Faxa: 943 36 10 48
Posta elektronikoa: hikhasi@antza.com

e d i t o

r i a l a



Itxaropena.

Hitz honekin hasi zuen HIK HASIk bukatzeaz dagoen ikasturtea. Eta egia esan itxaropen hori gorpuzten joan

dela aitortu beharra dago.

Aurreko ikasturtean euskarak eta euskal irakaskuntzak jasan behar izan zituzten erasoak kontuan izanda, nork pentsa zezakeen ikasturte hau giro lasaiagoan igaroko genuela?

Giro politikoaren aldaketak, eta *Euskararen Gizarte Erakunde*en KONTSEILUAren kanpaina egokiak balio izan dute hizkuntz eta hezkuntzako egoerak normalizatzen hasteko. Baina normalkuntzak urrats ausart eta sendoak ematea eskatzen du eta ausardia horretan denoi dagokigu geuretik jartzea.

Euskararen munduan, Euskal Herri osoa kontuan hartuko zuen plan komunen baten beharra antzematen bazen, abian jarri da dagoeneko Kontseilua plan hori prestatzeko. Arlo ezberdinetako 23 plan estrategiko lantzen hasi da eta horien artean Hezkuntzarena dugu.

Hezkuntza munduan bestalde, *Hezkuntzaren Gizarte GUNEA* eratu da. Euskal Herriak bere Hezkuntza Siste-

ma propioa behar duela pentsatzen duen zenbait kidek sortua.

GUNEAK Eskola Komunitateko kideen artean giro berria egotea nahi du, eskola hobetzeko gogoaz bideratzea. Eta indar metaketa bultzatuz. Eztabaida tresnatzat erabiliz, elkarlanean jorrotutako proposamenak zabaldu eta erakunde ezberdinetan eragin nahi du. Helburu nagusia ez da partaide orok ikuspegi berdina izatea, ez, adostasun posibleak bilatzea eta desadostasunak lokalizatzea baizik.

Horregatik gai ezberdinak aztertuiko ditu. "Euskara irakaskuntzan" lantzen jardun du eta adostasunen artean hauexek:

* Euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan aldarrikatzea.

* Lurraldean arteko plangintza bateratua egitea leku bakoitzeko aniztasunak errespetatuz eta estrategikoki aztertuz eta sakonduz.

* Hizkuntz ereduen formula zaharkitua gainditzea.

...

Esan bezala, itxaropena gorpuzten ari da. Datorren ikasturterako erronka zain dugu.

Bitartean, *OPOR ZORAGARRIAK* pasa ditzazuela.

*Itxaropena
denon
lanez
gorpuzten
ari da*



Ikasleak ez ezik, hainbat irakasle ere azterketa eta noten pean egon da ikasturte amaieran

k r o n



Ikasleen azterketen emaitzak zenbakitan

UBI eta IEEko azken txanpa izaten da selektibitatea eta aurten ere egin dute azterketa hori Nafarroa eta EAeko ikasleek. Datuak ikusita, emaitza onak izan direla esan daiteke. Nafarroan UBItik joandako ikasleen %91,7ak gainditu du selektibitatea aurten; D ereduan %90,88ak eta gaztelarazko ereduan %92,47ak eta A ereduan %71,88ak. IBBtik joandako ikasleen kasuan, gaztelarazko ereduko %86,43ak gainditu du, D ereduko %100ak eta A ereduko %83,33ak. Guztira 2.776 ikaslek egin dute selektibitatea, hauetatik 2.478k UBItik ikasketak egin dituztelarik

eta 298k IBB.

EAEn, bestalde, guztira 12.325 ikaslek egin dute azterketa hau eta %90,5ak gainditu du, hau da, 11.071ak. Gainditu ez dutenek berriro uztailean saiatzeko aukera izango dute. Izan ere, hori da aurtengo selektibitateak duen berrikuntza bat. Orain arte ekainean eta irailean egiten ziren azterketak, ekainean eta uztailean egingo dira hemendik aurrera. Dena dela, aldaketa honek ez die guztiei eragingo. Ikastetxe pribatuetakoz batzuk irailean egingo dute, baina datorren ikasturtetik aurrera denentzat iritsiko da aldaketa.

Baina ez dira emaitzen inguruan ditugun datu bakarrak. Espainiako Gazteriaren Batzordeak Eskola-Graduatuen inguruko txosten bat kaleratu du. Iazko azaroan hainbat adituk "Eskola-porrotaren jardunaldiak" burutu zuten eztabaidaren ondoren ateratako ondorioak biltzen dira dokumentuan. Estatu espainiarreko ikasleen %30ak ez omen du Eskola Graduatua lortzen.

Arrazoen artean aipatzen dituzte ikasketak planen egokitasun eza, irakasleriaren prestakuntza falta, familiaren laguntza eza eta baliabide ekonomikoen urritasuna.

Irakasleriaren suspentsoa

Irakasleriaren gehiengoaren lana azterketak jartzea, zuzentzea eta notak ipintzea izaten da ikasturte amaieran, baina ez guztiena. Adibidez, Irale programan euskara ikasten jardun diren irakasleen ikasleen lekuan egotea egokitzen zaie, hots, azterketak egitea.

Aurtengo emaitzak ez dira batere onak izan. PL1 frogak (euskararen ezagutza minimoa) egitera 550 irakasle baino gehiago aurkeztu zen eta %50ak baino ez du gainditu. PL2ren kasuan (euskarako klaseak eta klaseak euskaraz emateko gaitasuna), hamarretik seik -400 baino gehiago ez du gainditu.

Datuok ikusita, Irale sistemaren errepasso bat egin beharra dagoela nabaria da. Gaur egun, publikako irakasleak gehienez hiru urte eta pribatuetakoz bi urte eta erdi egon daitezke programa honetan euskara ikasten. Kasu bietan gehien lauhilabeteko bost edo sei mintegi egiten dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 5.700 milioi pezeta gastatu zituen iaz irakasleria hau euskalduntzeko.

Baina hala ere, emaitzak ikusita, sistema gainbegiratu beharra ikusten da.

“Normaltasuna” izan ohi da joera faxistazaleak dituzten pertsonen lehen ezaugarria. (ADAM SCHAFF)

ikasta

Ustaritzeko ikastolaren ikasturte amaiera

Uztaritzeko ikastolan ez dute ikasturtea oso ongi bukatu. Herri honetan ikastola berri bat eraikitzearen alde borrokan ari den Urkila taldekoak sorpresa bat baino gehiagorekin topatu baitira. Udal kontseiluan “Ikastola” izeneko batzorde berezi bat zegoen eta baztertua izan da. Auzapezak batzorde horren jarraikortasuna hitzeman arren, gauzak ez dira horrela gertatu.

Urkila elkarteak ikastolarentzako eraikin berria aldarrikatzen du, orain dauden lekuan arazo anitz baitituzte: bide gurutze arriskutsu batean dago, aparkalekua eskasa da, haurrentzat jolastoki egokirik ez dago eta abar. Egoera hau hurren heziketarako ez dela batere egokia ikusten dute eta hori aldatu nahian ari dira lanean.

Ea udak horretan laguntzen dien eta datorren ikasturtearen sarrerarako gauzak hobera aldatzen diren.

Bestalde, Udako Ikastaroak abian dira Miarrizten. Uztailaren 5etik 9ra bitartean hainbat ikastaro burutuko dira. Musika, historia, pedagogia, psikologia, sexologia, soziolinguistika, soziologia eta zientzia politikoak eta natur zientziak izanen dira aurtengo arloak, eta bakoitzean gai ezberdinak ukituko dira. Pedagogiari dagokionez, “Gogo-erabilketa” da aurtengo gaia. Mikel Erramouspe, Baigorriko Bil Exea kolegioko zuzendari eta historia-geografiako irakasleak aurkeztuko du gaia bere esperientziaren berri emanez.



Lanbide Heziketa: antolaketa eta euskara

Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak, Ikasbatuaz eta LAB taldeek elkarrekin burutu duten “Euskal irakaskuntzari mugarik ez” lelopeko kanpaina bukatu da. Lanbide Heziketa euskaldundu dadin burutu da kanpaina. Azkenean 10.000 sinadura bildu dituzte eta jende asko mobilizatu da. Irakaskuntzan hezkuntzaren alorrean dituen gabeziak gizarteratzea da taldeon asmoa eta kanpaina honekin lanbide Heziketako euskararen egoeraren berri eman nahi izan dute.

Aurrerantzean elkarrekin lanean jarduteko asmoa azaldu dute eta

hurrengo urratsa irakasleen ingurukoa izango da. Irakasleen kokapenak ekartzen dituen arazoei heldu nahi die, hau da, D ereduko ikastetxeetan irakasle erdaldun bat ezartzen dutenean sortzen direnei.

Bestalde, talde hauen aldarrikapena orain arte Lanbide Heziketan zentratu da, baina ez da eskaera bakarra izan. Euskadio Eskola Kontseiluko lehendakari den Pello Ellakuriak beste zenbait eskaera luzatu zituen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Batzordean. Gaur egun Lanbide Heziketaren planteamendua apartekoa dela esan zuen, baina bere gauzatzea katastrofiko dela eta bide txarretik goazela.

Ikasleei informazioa ematea eta orientatzea ezinbestekoa dela adierazi zuen euren interesen eta gaitasunen araberako ikasketak aukera ditzaten.

Era berean, ikastetxeko erabakiak zentroak berak hartu behar dituela aldarrikatu zuen, eta ez administrazioak, zentroa baita bere egoera hobekien ezagutzen duena. Zentro honetan eta bertako hezkuntza sisteman irakasleriak, ikasleriak, gurasoek, zentroko langile guztiek eta administrazio lokalak parte hartu behar dutela azpimarratu zuen.

GAIA

Holandako Lan

HETELEk antolatuta EAEko hamar Lanbide Heziketako 13 zuzendari eta ordezkari Holandan egon ziren martxoan. Lanbide Heziketako lau ikastetxe eta Ingeniaritzako beste

bat bisitatu zituzten. Sistematan, metodologian, antolaketan, ohituretan eta beste hainbat gauzatan topatu dituzte ezberdintasunak, batzuk hoberako eta hemen aplikatzeko modukoak.



lanbide Heziketa

Autoikasketa ardatz

Lanbide Heziketako eskoletako ordezkariak izanik, bidaia hau Lanbide Eskolak ikusteko aprobe txatu dute. Ez dira Lehen Hezkuntzako zentroetara hurbildu, beraz.

Holandan Lanbide Heziketa Bigarren Hezkuntzako aukera bat da, hemen bezalaxe, baina aukera gehiago ere badaude. Oro har, Bigarren Hezkuntza bi etapatan banatua dago. Lehenengoa 12-16 urte bitartekoa da, eta bigarrena 16tik aurrerakoa.

Lehenengo etapan lau aukera daude:

- Bigarren Hezkuntza Orokorra: 12-17 urte bitartean.

- Erdi Mailako Bigarren Hezkuntza Orokorra: 12-16 urte bitartean.

- Bigarren Hezkuntza Profesional Oinarrizkoa: 12-16 urte.

- Aurreunibertsitateko Bigarren Hezkuntza: 12-18 urte.

Guztietan 12-14 urte bitartean irakasten dena orokorra da, eta ondoren ezberdintzen dira, hots, 14-16 urte horretan. Hemen lehen zeuden Lanbide Heziketa, REM eta BBBren aukerak direla esan liteke. Lanbide Heziketari dagokionez, 14-16 urte bitartean espezializazio handia dago hemengo egoerarekin konparatuta.

Ondoren, Bigarren Hezkuntzako bigarren etapan, hots, 16 urtetik aurrera beste lau aukera daude:

- Lehen Mailako Lanbide Heziketa: gaitasun gutxiago duten ikasleentzat da eta ez da beharrezkoa Bigarren Hezkuntzako lehen etapa gainditua izatea. Urtebete edo gehiago iraun

dezake eta lortzen den titulazioa Lanbide Ikastunarena da. Ikasketa hauen barruan bi aukera daude: lau egun enpresan eta egun bat eskolan pasatzea, edo alderantziz.

- Erdi Mailako Lanbide Heziketa: honen barruan hainbat maila dago;

* Bigarren maila: bi urteko iraupena duena. Gobernuaren helburua gazte gehienek gutxienez bigarren maila hau lortzea da. Hemengo maila ertaineko Lanbide Heziketaren antzekoa da.

* Hirugarren maila: hiru urtekoa da. Gure Goi Mailako Lanbide Heziketaren parekoa da.

* Laugarren maila: lau urtekoa da eta hemengo Ingeniaritza Teknikoaren baliokidea da. Eskaera handia du. Nahiz eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa maila hauekin bukatu, laugarren maila egin dutenak Goi Mailako Lanbide Heziketara pasa daitezke.

- Goi Mailako Lanbide Heziketa: lau urteko iraupena du. Hauek ere hemen bukatzen dira, baina ikasleek ikasketa unibertsitarioak egiten jarrai dezakete berriazko frogatik gaituz gero.

- Ikasketa Unibertsitarioak: lau urtekoak dira eta ondoren bi urteko ikerketa zientifikoko formakuntza egin daiteke.

Hauxek dira, beraz, Holandako hezkuntza sistemak Bigarren Hezkuntzan eskaintzen dituen aukerak. HETELeko ordezkariak bezala, Lanbide Heziketan zentratuz, aukera anitz daudela ikus daiteke. Eta aipagarriena maila

“Ikaslea da ikas-irakaskuntza prozesu osoaren ardatz eta hori zentroen azpiegituran, tratuan (poza adierazten duten ikasle desinhibituak ikusten dira) eta beste hainbat ekintzetan islatzen da”



batetik bestera pasatzeko dagoen erraztasuna da. Baliozkotzeak eginda daude eta ez dago inolako oztoporik ikasketa batzuk bukatu ostean beste batzuekin jarraitzeko. Adibidez, bigarren mailako Lanbide Heziketa egin ostean hirugarren mailakoa egin nahi badu norbaitek, behar duen azterketa publikoa egin eta urte batzuk baliozkotzen zaizkio. Horrela, hiru urtetan egin beharrean batean egiteko aukera izanen du.

Holandako Lanbide Heziketako ikastetxeen %80 pribatua da eta %20 publikoa. Bi sareek antzeko tratamendua jasotzen dute Gobernuaren aldetik. Guztiek emaitzen eta ikasle kopuruaren arabera dirulaguntza jasotzen dute. Gobernuak sostengatzen dituen instituzio independenteek neurtzen dituzte ikastetxe hauetako emaitzak eta ikasle kopuruak urtero eta horren arabera banatzen zaie laguntza ekonomikoa.

Bestalde, hemen gertatzen den antzera, Lanbide Heziketak Batxilergoak baino pisu gutxiago du. Ikasleen %80k Batxilergora jotzen du eta %20k Lanbide Heziketara.

Hala ere, hemengo eta hango unibertsitatea ez dira berdinak. Holandako unibertsitatea oso teknikoa da eta ingeniariak ikasketak egiten dituen ikasleriaren proportzioa hemengoa baino askoz handiagoa da. Hemen zientifiko, kimiko, biologo eta psikologoak dauden bitartean, han karrera teknologikoen pisu gehiago dute. Hori da gizarteak eskatzen duena eta

horri erantzuten saiatzen dira. Ondorioz, denek aurkitzen dute lana. Hori ongi aztertuta daukatela esan liteke.

Konpromiso soziala

Gizarte mugimenduek, udalek eta enpresek ikastetxeekin duten konpromisoa atentzioa emateko modukoa dela ikusi dute HETELEko ordezkariak. Lanbide Heziketaren kasuan, enpresen etorkizuna Lanbide Heziketarekin lotuta dagoela argi daukate. Horregatik, proiektu komunetan kolaboratzen dute, ikasleen eta irakasleen enpresako praktketan. Baina bada beste berezitasun bat ere. Ingeniariak eskolako ikasleek enpresek eskolari eskatutako ikerketak egiten dituzte. Beraz, praktikotasun guztia duten ikerketak dira, gero enpresetan aplikatuko direnak. Esperientzia interesgarria da.

Udalek, bestalde, zentroak finantzatzen dituzte eta beste laguntza aipagarri eta garrantzitsu batzuk emateko ez dute inolako oztoporik jartzen. Esate baterako, ikastetxeak eraikitzeke lurrak emateko. Nahiz eta Lanbide Heziketako ikasleen proportzioa handia ez izan, konbentziturik daude dagoena zaindu egin behar dela eta horregatik ematen dituzte laguntzak.

Ikastetxeak in situ

Bost ikastetxe bisitatu zituzten HETELEkoek Holandan egondako hiru egunetan: S'Hertongenbosh herriko Koning Willem I College, zentro bereko beste kanpus bat, Veld-

hoven herriko Sondervick College, Eindhoven-go Lizeo Teknikoa eta herri bereko Ingeniariak Fakultatea.

Bisitatutako zentro guztiak nahiko handiak dira, 2.500 eta 13.000 ikasle artean baitituzte. Bi solairu baino ez dituzte, baina azalera milaka metro karratukoak dira. Sarrera handi bat dute denek, bostehun edo mila metro karratukoak. Sarrera hau elkartzeko eta dibertimendurako gunea da, ikasketa leku informala, ikasleak taldeka biltzeko tokia, lorez apainduta egon ohi da eta kafetegia du. Horrelako leku batean ikasleak etxean sentitzen dira eta hori da lortu nahi dutena. Ikaslea da eskolaren ardatza eta horrelako egiturek hori islatzen dute. Gainera, zenbaitetan ikasleek txartel bat dute eta horrekin eskolako hainbat zerbitzu erabil ditzakete: edari eta janari makinak eta zerbitzuak, aldizkariak, fotokopiagailuak...

Talde-lanak egiteko "gela irekiak" ere badaude. Areto handiak dira, bostehun metro karratuko gelak izatera iritsi daitezkeelarik eta ikastetxea handia bada hiru, lau edo bost egon daitezke. 50-100 ordenagailu inguru egoten dira gela hauetan, aldizkariak, liburuak, CD-ROMak... Ikerketak eta lanak egiteko aukera zabala dute eta ikasleak baino ez dira ikusten, irakaslerik ez. Ordenagailuak konpontzen eta arazo informatikoak bideratzen egoten den arduradun bat egoten da, baina ez beste irakaslerik. Hauek beraien mintegietan egoten dira lanak egiten.

Tailerrak, berriz, hemengo bikoi-tzak edo bost edo hamar aldiz handiagoak dira. Ekipamendu aldetik, ordea, ez daude hemen baino aurreratuago. Hemengo Lanbide Eskolek ekipamendu berriagoa eta hobea dute, baina gutxiago programatuta daude. Holandan, nahiz eta hain makina berriak ez eduki, dauzkaten horietan lan egiteko programak prestatuagoak eta landuagoak dauzkate. Ikasle batek badaki makina baten aurrean zer egin behar duen, pauso guztiak zehaztuta dituen programaketa baitauka.

GAIA

Holandako Lanbide Heziketa

Autoikasketa ardatz

Kalitateari dagokionez, ISO 9002 eta EFQM ereduak ezagutzen dituzte, baina ez daude prozesu horietan sartuta. Agian zuzendariren batek edo beste zerbait egingo du, baina ez dago eskola guztian zabaldua eta orokortua. Hala ere, horrek ez du esan nahi kalitaterik ez dutenik. Nahiz eta ziurtagiri horiek ez eduki, diziplina kolektiboa eta talde-lana oso zabaldua daude eta horrek kalitatea bermatzen du, hein handi batean. Gainera, batzuen ustez, ISO ziurtagiria edukitzea ez da beharrezkoa heziketa arloko ekintzarako.

Ordutegia ere aipagarria da, gaueko 10:00ak arte irekita egoten baitira egunero eta larunbatetan ere bai. Honek ere lagundu du eskola ikasleen etxe bihurtzen. Talde-lanak egiteko eta tresnak erabiltzeko aukera zabal baitute.

Irakasleen ordutegia

Irakasleen lanorduak ere ezberdinak direla ikusi dute bisitatu dituzten zentroetan. Astean 40 ordu egiten dute lan. Hauetatik 28 inguru klaseak emateko izaten dira eta gainontzekoak prestakuntzarako. Lehen ordu gutxiago egiten zuten lan, baina kompetentziak bultzata gehitu dituzte. Hala ere, ordutegiaren kontrola ez da garrantzitsua, helburuei gehiago begiratzaren diete. Enpresetan bezalaxe, ez da hain garrantzitsua zein ordutan sartu eta irteten zaren, baizik eta zein prozesuren jabe zaren eta prozesu horiek nola garatzen dituzun.

28 ordu klaseak ematen pasa ondoren beste 12 ordu gelditzen zaizkie, eta hauek, esan bezala, prestakuntzarako erabiltzen dituzte. Irakasleriaren prestakuntza eta ikastetxeko hobekuntzak asko bultzatzen dituzte. Esaterako, irakasle batek zuzendaritzari proiektu bat planteatzen badio eta honek zentroko hainbat arazo konpontzeko egokia dela ikusten badiu, irakasle hori eta bere laguntzaileak proiektu hori prestatzeko eta gero martxan jartzeko liberatuko ditu.

Horrelako erabakiak ikastetxearen

esku daude. Alde horretatik erabat autonomoak dira.

Ondorio orokorrak

Bisita honen ondoren HETELekoek hainbat gauza argi ikusi dituzte: autoikasketaren metodologiaren egokitasuna, diziplina anitzeko proiektuen gaineko talde-lana nola egiten duten eta talde-lanak zein bakarkakoak egiteko ordenagailuz hornitutako gela komunak dituztela. Gela hauekin batera, beste batzuk ere badaude, guztiak zabalak eta handiak, irakasle zein ikasleak eroso sentitzeko modukoak. Ikastetxeetan irakasle ez diren langile asko ikusi dituztela ere aipatu dute.

Azken ondorio bezala zera azpimarratu dute: ikaslea dela ikas-irakas-kuntza prozesu osoaren ardatz eta hori zentroen azpiegituran, tratuan (poza adierazten duten ikasle desinhibitua ikusten dira) eta beste hainbat ekintzatan islatzen dela.


“Ekipamendu aldetik ez daude hemen baino aurreratuagoak, baina dauzkaten makinekin lan egiteko programak prestatuagoak eta landuagoak dauzkate”



Mikel Balerdi

Andoaingo La Salle-Berrozpe ikastetxea

“Jasanezina da Euskal Herrian ikasleen erdiak DBH ez gainditzea. Horren aurrean irakasle talde bat ezin da lasai gelditu”



Ikusi dituzuen gauzen artean, zer da azpimarratuko zenukeena?

Batez ere bi gauza azpimarratuko nituzke nik: gauzak hemen baino askoz programatuagoak eta zehatzagoak daudela eta metodologia egokiagoa dela.

Zer abantaila ditu dena programatua izateak?

Eginbehar guztiak eta jarraitu beharreko pauso guztiak programatuta badaude ikasleak bere kabuz egin dezake lana. Hau da, hasieran gaia aurkezten zaie ikasleei eta ondoren badakite gai hori bukatu arte zer egin behar duten. Horrela, ikasleak berak kontrolatzen du egingen ari dena.

Hemen, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Irakaslea edota libu-

rua daude eta horiek dira prozesu osoa gidatzen dutenak. Horiek gabe ikaslea zer egin ez dakiela gelditzen da.

Ikasleen pasibotasunari aurre egiteko modu bat ere bada, orduan, programazio mota hau.

Bai, noski. Bestela, ikasleak irakasleak zer esan edo agindu zain

egoten dira. Adibidez, nik 11:00etan klase bat izango banu eta 11:15ean joango banintz gelara, denak nire zain egongo lirateke. 19 urterekin bakoitza bere lanak egiten egon beharrean, denak zain. Eta ordu osoan agertuko ez banintz, berdin jarraituko lukete. Gaurko eskemak horretara garamatza. Iniziatiba irakasleak du, ikasleak eskema horretan sartzen dira eta horrela funtzionatzen du. Hori aldatu egin behar da.

Metodologia aldaketa dakar horrek eta hori da aipatu duzun beste puntua. Nolako metodologia darabilte?

Leideneko Unibertsitateak bultzatzen duen ikas irakas-sistema berri bat da. Askoz ere metodologia pertsonalatuagoa da, talde-lanekoa eta irakasleak ez du sistema magistrala erabiltzen, laguntzaile eta orientatzailea da. Hemen horrelako sistema autonomoak haur txiki-ekin erabiltzen dira, baina gero ahaztu egiten dira, eta Bigarren Hezkuntzan are gehiago.

Sistema berri honen adierazgarri argienak "gela irekiak" dira. Gela hauetan ordu asko pasatzen dituzte ikasleek, bai klase orduak eta baita klasetik kanpokoak ere.

"Hamar minutuko azalpena" deitzen den klase mota ere badago. Hauetan irakasleak hamar minutuko azalpena besterik ez du ematen. Ondoren ikasleak beren kabuz "gela irekian" lan egiteko antolatzen dira.

Bestetik, oso normala da asteko lau egunetan klaseak jasotzea eta ostirala proiektuak egiteko eguna bezala izendatua egotea. Ostiral goiz-goizetik ikasleak taldeka elkartzen dira proiektuak lantzeko, batzuetan irakasleak proposatutakoak eta bestetan beraiek aukeratu-takoak.

Beste batzuek astean egun erdi bat edo osoa hartzen dute irakasle talde batek prestatutako diziplina anitzeko proiektu bat lantzeko.

Bide hau hartu behar dugula uste dut.

Sistema hau ezar al daiteke hemen? Nola?

Bai, noski, antolaketa alda daiteke. Horretarako irakasleriak talde bezala konbentziturata egon behar du. Hori da lortu behar den lehenengo gauza, sisteman sinestea.


Egon al da saiakerarik?

Bai, ni neroni eskema honetan irakasle izan nintzen orain dela 15 urte. Nik Teknologia irakasten nuen. Ikasleak Teknologia aztertu behar zutenean nire gelara etortzeko aukera zeukaten. Etortzen zirenei hiru asteko lan-programa ematen nien eta beraiek antolatzen zituzten hiru aste horiek, ordu bakoitzean zein gelalara joan eta zer egin erabakiz.

Eskola osoak funtzionatzen zuen eskema honekin eta oso metodo egokia zen. Baina jarraipen ezagatik eta agian irakasleria osoa proiektuarekin bat eginik eta konbentziturata ez zegoelako, ez zuen aurrera egin. Etorkizunari izugarritzko aportazioa egin geniezaiokeen, baina azkenean kendu egin zen.


Zuk, hala ere, sistema hau defendatzen jarraitzen duzu eta Holandan praktikan jarria ikusi duzu. Metodologia hau berriz martxan jartzeko ideiarekin zbiltza?

Bai, hala da. "Belkoain proiektua" jarriko dugu martxan datorren ikasturtean eta metodologia honetan oinarritzen da. Boluntarioz osatutako irakasle talde bat bildu gara eta dena zehaztu gabe badago ere, nola antolatu pentsatzen ari gara.



"Belkoain Proiektuaren muina ikaslearen parte hartze aktiboan egongo da. Bakarrik eta taldeka egingo dute lana eta irakaslea laguntzaile edo aholkularia izango da"

"Hamar minutuko azalpena deitzen den klase mota dago eta hauetan irakasleak hamar minutuko azalpena besterik ez du ematen. Ondoren ikasleak beren kabuz gela irekian lan egiteko antolatzen dira"



Taldearen gestio akademikoa eta funtzionamenduaren antolaketa dozena erdi bat irakasle, ikasle eta gurasoren eskuetan egongo da.

Proiektuaren muina ikaslearen parte hartze aktiboan egongo da. Bakarrik eta taldeka egingo dute lan eta irakaslea laguntzaile edo aholkularia izango da.

Hala ere, irakasleen aldaketa bakarra ez da hau izango. Holandan lan egiten duten ordu kopurua 40koa izanik, prestakuntzarako denbora gehiago dute eta hori ere kontuan eduki behar da. Guk ere aukera hori izango bagenu, edo gutxienez 35 ordu, beste antolaketa bat egin ahal izango genuke.

Horrez gain, irakasleen artean lan-taldeak sortu behar dira. Horretarako denbora behar da eta bideratzen jakin. Guk orain arte arratsalde bat libratzen genuen elkartzeko eta irailetik aurrera bi arratsaldetan hasiko gara. Bestela ezin da talde-lana bultzatu eta jendea animatu.

Premiazkoa ikusten al duzu egungo sistema aldatzea?

Bai. Jasanezina da Euskal Herrian ikasleen erdiak DBH ez gainditzea. Horren aurrean irakasle talde bat

ezin da lasai gelditu.

Nik uste dut gure irakasteko eredu erabat zaharkitua gelditu dela. Eskolak errealitate berri baterako prestatu behar gaitu, bizitza osorako formakuntza iraunkorra eskaini behar du. Beraz, sistema arautuak hori prestatu behar du.

Horretarako, paper nagusiak ez du irakaslearen eskuetan egon behar, bakarkako eta taldeko lanetan baidzik. Horrek dinamismoa eskatzen du eta hori ez du gure egungo sistemak inondik inora eskaintzen.

Holandan, berriz, hori inbidiaz ikusi dugu eta "Belkoain proiektuarekin" hasteko erabakia hartuta daukagu. Gainera, metodologia honen atzean Leideneko Unibertsitatea dagoela jakitea berme bat da.


Gurasoak ere ados daude proiektuarekin, baina aldi berean beldur dira. Etorkizuna nola datorren ikusten dute baina ikasleak aldatzeko zer metodo aplikatu behar den ez dakite eta hor sortzen zaizkie zalan-tzak eta kezak.

Baina Holandan sistema hau orokorrean aplikatzen eta zabaltzen ari dira eta horrek gure asmoa sendotu egiten du.

elkarriketa

MAIXABEL GAZTAÑAGA

“*Haur literaturari bizi dugun gizartea islatzea falta zaio*”



Maixabel GAZTAÑAGA

MAIXABEL
GAZTAÑAGA



“


*Badirudi
hezkidetzaren alde
egitea emakumeen
alde egitea dela.
Noski emakumeen
alde egin behar
dela, baina
hezkidetzaren
kontra egoteak
mutilen kontra
egotea esan nahi
duela ez dugu
ahaztu behar ”*

Hezkidetza bultzatzeko hainbat modu egon litezke aholkuak eta laguntzak ere bai. Adibidez, hemendik aurrera, “Hezkidetzaren aldeko Literatura” katalogoak hezkidetza aldetik haurrentzako egokiak diren liburuak aukeratzen lagunduko digu. Maixabel Gaztañagak, Donostiako Zuloaga Haur Eskolako irakasleak 1.100 liburu inguru aztertu ditu eta gomendagarriak direnak bereiztu.

Zer biltzen du katalogo honek?

Hezkidetzaren aldeko katalogoa da, ohiko estereotipoetatik urruntzen diren liburuak biltzen dituena. Neska-mutilen zereginak eta izaera ikuspuntu ez sexista batetik lantzen dituzten liburuak bildu ditut. Haur eta gazte literaturako 1.100 liburu inguru aztertu ditut, 1985etik 1997ra bitartean euskaraz argitaratutako ia gehienak, eta horietatik 85 daude katalogoan, adinaren arabera sailkatuak (0-6 urte, 6-9 urte eta 9-12 urte).

Batzuk hezkidetzaren aurkakoak ziren eta horiek garbi utzi ditut kanpoan. Beste batzuk ez ziren ez alde-



koak eta ez kontrakoak, eta hauek ere ez ditut sartu. Katalogoan daudenak ikuspegi berri bat ematen dutenak dira. Ohiko estereotipoetatik kanpo beste balore batzuk bilatu ditugu eta horiek dituzten liburuak aukeratu.

Nondik sortu da katalogoa egiteko ideia?

Donostiako Haur Liburutegitik etorri zen ideia. Bertako arduradunek zenbait kezka jasoak zituzten. Hainbat guraso eta irakasle behin baino gehiagotan joaten zen liburu egokiagorik ba ote zuten galdezka. Hau da, nesken eta mutilen tratamendua betiko estereotipoen barruan lantzen ez zuten liburuak nahi zituzten. Horregatik, kezka hori zegoela ikusita, horrelako katalogo bat egitea interesgarria iruditu zitzaien.

Horrela, literatura munduan adituak diren Eukene Martin, Mari Jose Olaziregi eta Xabier Etxanizi deitu zieten eta hauek niri.

Zergatik jo zuten zuregana?

Lehendik ere gai honen inguruan hainbat gauza egin nituelako. Donostiako Emakume Taldearengana jo izan dut zenbait kezka nituela eta. Liburu batzuk Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntza jaso zuten eta lotsagarria iruditu zitzaidan halako liburuak argitaratzeko laguntzak ematea gaur egun.

5-6 urteko haurrentzako hamar liburu bilduma bat zen. "Hau nire aita da" liburuan aita jakintsua, dirua irabazten zuena, indartsua... zen. "Hau nire ama da" liburuan, ostera, ama oso garbia zen, etxea txukun edukitzen zuena... Horrelako gauzak argitaratzea ezinezkoa zela iruditzen zitzaidan. Kexatzera eta zer egin genezakeen planteatzera joan nintzen.

Egin zitekeen gauzen artean

katalogoa argitaratzea pauso bat izan liteke. Nola egin duzue azterketa eta sailkapena? Zein irizpideren arabera?

Hasteko, literatura klasikoko ipuinak ez ditugula aztertu esan behar da. Alde batetik, sexistak direlako, eta bestetik, beste liburuek adinako eraginik ez dutela pentsatzen dugu-lako. Liburu horiek ez dute islatzen haurren egunerokotasuna eta ohiko egoera, majikoak dira, eta eguneroko bizitzatik at bizitzen dituzte ipuin hauek. Horregatik, beste liburu batzuk baino kalte gutxiago egiten dutela pentsatzen dut. Aitaren, amaren, mutilaren edo nesken papera agertzen dituzten liburuak askoz kaltegarriagoak direla uste dut. Egunerokotasun horrekin identifikatzen direnek kalte gehiago egiten dutela, alegia.

Zenbateko kaltea sor dezakete, bada?

Ez dugu ahaztu behar liburu haue-tan mezu batzuk daudela eta mezu horiek haurrak nahi gabe jaso eta bereganatu egiten dituztela. Askotan liburu pertsonaiekin identifikatzen dira. Horregatik, horrelako liburuak atzerakoiak dira eta kalte handia egin dezakete nahiz eta haurrek gaur egun beste errealitate bat bizi etxean. Hau da, etxetik kanpo lan egiten duten amak dituzte, autonomoak direnak, jakintsuak direnak, etxeko lanetan parte hartzen dute aitek... Baina hori bizi arren, askotan eragin handiagoa dute liburu bidez jasotzen dituzten zenbait mezu, behin eta berriz agertzen baitira. Eta gainera, zenbait liburu irakurtzean pertsonaiekin identifikatzen dira edo pertsonaia horien zenbait gauza barneratzen dituzte.

Badirudi mezu eta estereotipo hauek batez ere emakumeei edo neskei egiten dietela kalte. Hala al da?



Ez, hori uste izaten dugu, baina mutilei eta gizonei ere kalte egiten diete. Neskei aukerak murrizten dizkie, baina mutilei irtenbide bakarra ematen diete: indartsuak izatea, astakiloak, agresiboak... eta beste zenbait balore ukatu egiten zaizkie. Beraz, presionatuak daude mutilak ere.

Batzutan badirudi hezkidetzaren alde egitea emakumeen alde egitea dela. Noski emakumeen alde egin behar dela, baina hezkidetzaren kontra egoteak mutilen kontra egotea esan nahi duela ez dugu ahaztu behar.

Baina benetan zenbateko eragina dute liburuek neska-mutilengan? Zeren telebista, etxea eta beste hainbat faktore ere badaude.

Egia esan, denek eragiten dute, noski, baina liburuek guk uste baino gehiago. Gaur egun tendentzia handia dago haurrei oso txikitatik liburutegira joaten irakasteko eta irakurzaletasuna bultzatzeko. Eta konturatu gabe, liburu horietako estereotipoak barneratu egiten dituzte. "Nesken

MAIXABEL
GAZTAÑAGA



“*Kontziente bagara zer motatako hezkuntza eskaini nahi diegun gure ikasleei edo seme-alabei, gure eskuetan egongo da zenbait liburu erosi edo ez erosi*”

eginkizuna etxean egotea da eta mutilena kanpoan lan egitea” esaten dute, eta hori ez dute etxean ikasi. Orduan non? Bada, liburuetan. Behin eta berriro errepikatzen diren irudi eta testuetatik jasotzen dituzte mezu hauek.

Etxean ez eta liburuetan bai. Gizartea eta haur eta gazte literatura ditugu parez pare. Gizartea baino atzeratuagoa al dago hezkidetzaren literatura?

Baietz esango nuke. Nik uste dut gizarte sexista batean bizi garela, baina bestalde, mendebaldeko gizartean behintzat, emakumeon aukera asko aldatu dela: hainbat eginkizunetan eta gizartean parte hartzen ari gara. Oraindik asko falta zaigu, baina aurreratzen ari gara.

Haur eta gazte literaturak, berriz, oraindik ez du pauso hori eman, atzerago dago. Adibidez, rolei begiraturaz, oso emakume gutxi agertzen da profesional bezala, eta gehienez irakasle edo erizain bezala. Emakume ekonomista, sendagilea... noiz-behinkako liburuetan baino ez da agertzen. Eta gizartean gaur egun badaude emakume ekonomistak, sendagileak...

Haur literaturari bizi dugun gizartea islatzea falta zaio.

Funtzio hori betetzeko bitartekoak testuak eta irudiak dira, liburuaren kasuan. Nola islatzen dira testuak irudietan? Nolakoa da hezkidetzaren tratamendua?

Azterketa egiterakoan biak hartzen dira kontuan, testua eta irudiak. 0-6 urteko haurrentzako liburuetan, esaterako, garrantzi handiena irudiek dute.

Askotan testua eta irudiak ez datoz bat, hau da, testuan gauza bat kontatzen da eta irudiek gauza desberdina irudikatzen dute. Nahiz eta tes-

tua hezkidetzaren ikuspuntutik egokia izan, betiko irudiak errepikatzen dira, eta horregatik baztertu ditugu liburu hauek.

Noren erantzukizuna da hori, idazle eta marrazkilariena?

Agian bai, beraiek direlako egileak, baina ez dut uste apropos egiten dutenik, inkontzienteki baizik. Estereotipoak hain barneratuak ditugunez, nahi gabe sartzen ditugu. Eta hori guztioi gertatzen zaigu, ez egileei bakarrik. Batzuetan oso nabariak dira irudi sexistak, baina beste batzuetan liburu normala iruditzen zaigu irudi horiek ikusten ohituta gaudelako. Hausnartzen hasten garenean konturatzen gara, ez bestela.

Agian eragin handia izango dute guk irakurri ditugun liburuak: Robinson Crusoe, Tom Sayer... hauek beti mutilak dira protagonistak. Emakumeak Mari Errauskin, Edurne Zuri eta horrelako ipuinetan agertzen dira.

Nolako papera jokatzen dute argitaletxeek?

Argitaletxeek merkatuaren arabera funtzionatzen dute. Mari Errauskin eta soinuak dute liburuak saltzen badira, horiek merkaturatuko dituzte. Dirua ematen duten liburuekin jokatzen dute. Adibidez, badaude urtero berrargitaratzen diren liburuak eta beste batzuk, bitartean, ezin dira aurkitu.

Orain dela urte mordo bat Lumen argitaletxeak “A favor de las niñas” liburu bilduma argitaratu zuen gatzeleraz. Egia esan, hezkidetzaren aldekoak baino gehiago, salaketa liburuak ziren. Bere momentuan emakumearen aldeko diskriminazio positiboa bultzatzeko garrantzitsuak izan zirela iruditzen zait. Hain bereziak izanda, inoiz ez dira euskara-

tuak izan. Gainera, gaur egun ezin dira liburudendetan aurkitu eta pena da.

Zerbait egin al daiteke dagoen eskaintzaren aurrean?

Bai, lehenengo kontzientziatu egin behar dugu eta gero presioa egin dezakegu. Eskaintza eskaeraren arabera izanik, gure eskaera alda daiteke. Zenbait liburu baztertzan baldin baditugu, argitaletxeak presionatu egingo ditugu. Norbera libre izango da nahi duena idazteko, baina gure aldetik kontziente bagara zer motatako liburuak eskaini nahi dizkiegun ikasleei edo seme-alabei, gure eskuetan egongo da zenbait liburu erosi edo ez erosi. Horrela, argitaletxeak, idazleak eta marrazkilaria presionatuko genituzke eta arreta gehiago jarriko lukete hezkidetza aldetik.

Baina horretarako irakasleok, gurasoek eta liburutegieta-ko arduradunek kontzientziatu egin behar dugu. Nola?

Gida edo katalogo honek erreferentzia gisara balio dezake eta asmo horrekin egin da, gainera. Jendeak hemen agertzen diren liburuak irakurri eta agertzen ez direnekin konpara ditzake diferentzia ikusteko. Hezkidetza aintzat hartzen duten liburuak eskatzeko lagungarri izan liteke. Eta ondoren, norberak bere galbahe lana egingo du etxean, ikastetxean edota liburutegian.

Etxean zer egin daiteke, adibidez?

Lehenengo, hezkidetza aldetik egokiak iruditzen zaizkigun liburuak erosi. Eta horrez gain, seme-alabekin irakur daitezke liburuak gaiaz hitz eginez.

Adibidez, katalogoan izartxo bat duten hiru liburu daude eta horiek guraso edo irakasleen laguntzarekin irakurtzekoak dira eztabaidarako



liburuak direlako. Itxuraz hezkidetza ongi lantzen duten liburuak dira, baina interpretazio okerrak sor ditzakete. Adibidez, "Handia egiten naizenean, zer?" liburuan neska bat handitan zer izango den pentsatzen eta amesten ari da: mekanikaria,

"Askotan liburu-irudi estereotipoek haurrei inguratzen dien errealitate horrek baino indar gehiago dute"

okina, jostuna... lanbide ugari agertzen dira. Baina lanbide horiek irudikatzerakoan, gizonak agertzen dira. Beraz, haurrak bakarrik irakurtzen badu zenbait arazo sor diezazkioke: alde batetik, edozein lanbide aukera dezakeela pentsa dezake, eta bestetik, lanbide horiek denak gizonetzkoek burutzen dituztela. Irudiek nahasketa hori sor dezakete. Guraso eta irakasleek, berriz, haurrekin eztabaida dezakete puntu hori.

Eskolan eta liburutegietan ere lan egin daitekeela aipatu duzu. Zer proposatzen duzu?

Gaur egun ikastetxe askotatik joaten dira herriko edo auzoko liburutegira. Eta gune egokia izan liteke 8-12 urteko haurrekin lan polita burutzeko. Normalean liburuak aukeratu, irakurri eta laburpentxo bat egiten dute. Bada, edozer gauza irakurri beharrean, antzeko liburuak irakur ditzakete eta horren inguruko lanak egin. Oso lan polita izango zatekeen estereotipoak eta neska-mutilen arteko ezberdintasunak erakustea eta kontzientzia hartzen laguntzea.


Hori bideratzeko horrelako galderek lagun dezakete: Zerk deitu dizu arreta? Zein egoeratan agertzen dira mutilak? Eta neskak? Zein rol dituzte batzuek eta besteek? Zein da protagonista eta zein bigarren mailakoa?

Liburutegiek eta ikastetxeek elkarrekin egin dezaketen lana da.

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

40




Zumalakarregi Museoa

Historia
ikasteko beste
modu bat

Zumalakarregi Museoa

Historia ikasteko beste modu bat



Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoa ikusteko astia hartzeko gomendio luzatzen dizuegu. Historia museo honen ardatza Tomas Zumalakarregi jeneral karlista bada ere, oro har, XIX. mendeko gerra karlisten inguruko informazioa topa daiteke bertan. Taula, dokumentu, irudi eta objektuekin batera hainbat gai lantzeko material didaktiko asko daukate prestaturik. Museoan zein ikastetxean lantzeko aukera ematen dute, gainera.

Zergatik dago Ormaiztegin historia museo hau? Zergatik du Zumalakarregi Museoa izena? Museoari izen hori jartzeko arrazoia Tomas Zumalakarregi jeneral karlistarengan topatu behar da. Eta kokapena ere bai, ormaiztegiarra baitzen.

Tomas Zumalakarregi 1788an jaio eta 1835ean hil zen. Karlisten artean jeneral ezaguna eta garrantzitsua bilakatu zen. Bere inguruan jendea biltzen eta antolatzen jakin zuelako egin zen ezagun. 1939an, Gipuzkoako Diputazioak Tomas Zumalakarregi bizi izan zen etxea erosi zuen Ormaiztegin, Iriarte Erdikoa. Diputazioaren asmoa historia museo bat irekitzea zen eta hamar urtetan jardun zuten txukuntzen eta erakusteko moduan jartzen.

1949an ireki zen, baina ez zen egun

osoan irekita egoten. Egia esan, ez zen garai erraza museoak irekitzeko eta museo politikaririk ere ez zegoen. Interesatu edo jakintsu batzuk baino ez ziren hurbiltzen udaletxean giltzak eskatuta.

1987an beste aldaketa bat jasango du museoak. Etxea guztiz eraberritu ondoren museo moderno baten erara txukundu zuten eta 1989an inauguratu. Museoa gidatuko duen filosofia ere aldatu egiten da. Tomas Zumalakarregi jenerala eta Lehenengo Gerra Karlista garai bat azaltzeko bitartekoak bihurtzen dira. Garai hark berebiziko garrantzia izan zuen mendebal gizartearentzat, aldaketa iraultzaileek Europa osoa astindu zutelarik. Euskal Herrian barne eta kanpoko faktoreek gatazka, berriro ere, bortitz eta gogor lehertara-

zi zuten. Gerra Karlista krisi politiko, ekonomiko, sozial eta ideologikoaren kausa eta ondorioa da, era berean.

Gai hauen berri emateko hainbat material bildu zen: Zumalakarregi eta bere familiaren objektu pertsonal, apaingarri eta militarrik; garai armak, sableak, ezpatak, fusilak eta prefilatelia gaiak; XIX. mendeko lehen herenean kuinaturiko txanponak; agiri multzoa, eskutitz sailak, hainbat gairi buruzko txostenak, prentsa, irudiak eta fondo bibliografikoak, XIX. mendeko idazlan biografiko, zientifiko eta orokorrak. Hauek guztiak Frantziako Iraultza eta II. Gerra Karlista bitartekoak dira. Historiako zati hori azaltzeko erabiltzen dira. Beraz, museoa ez da Tomas Zumalakarregirengan zentratzen, hori baino zabalagoa dela esan daiteke. Perspektiba historiko bat badu orain, hasieran ez zuena, eta XIX. mendeko Euskal Herria ezagutzeko aukera eskaintzen du horrela.

Museoaren barrualdea

Nola islatzen da historia museo batean? Zer bitarteko erabiliz hurbiltzen gaitu XIX. mendeko gizartera eta gerra karlistetara? Hori Xabier Kerejeta museoko Difusio Zerbitzuko arduradunak azalduko digu. Bera izanen dugu museoeko gidari eta erakusle.

“Hasteko, etxea bera baliabide bat dela esan behar da. Monumentu probintzial izendatua dago Zumalakarregiren bizilekua izan zen etxe hau. XVIII. mendeko baserri tipikoa da, egurrezkoa eta etxe barruko gauzak ikusi ahala, etxea bera ere begiratzeko modukoa da” hasi zaigu esplikatzeko Kerejeta.

Etxe honetan erakusketa iraunkorrrak daude, besteak beste. Hauetan taulak, dokumentuak, agiri orijinalak, erreprodukzioak, grabatuak, argazkiak, irudiak, ikus-entzunezkoak, objektuak, garai hartako armak, jantziak, uniformeak eta abar daude. Tes-

tuak laburrak dira, modu arinean irakurtzekoak. “Lehen, testuak luzeagoak ziren, baina laburtu egin ditugu irakurterazagoak eginda. Disenua, letra tipoak eta abar ere aldatu egin ditugu eta inpresio arina du orain. Askotan historia hitz gutxitan esplikatzea zaila da, baina didaktikoki begiratuta, ez da komeni oso luzeak eta astunak egitea ere”. Horregatik, oreka bilatzen saiatu dira egin dituzten aldaketan bidez.

Etxearen behealdean, bestalde, “Lantegi interaktiboak” deitzen direnak daude. XIX. mendeko sukaldea, jantziak eta beste hainbat gauza topa daitezke hemen. Oro har, garai hartako gizartea ezagutzeko gunea da, proposamen erakargarri, ludiko eta parte-hartzaileen bidez. Zeren Kerejetak esan digunez, “lantegi” hauetan jokoa egiten dituzte.

Txoko honetan maleta didaktiko batzuk ere ikusi ditugu eta kuriositatez begiratu. “Maleta hauek ere garai hura ezagutzeko tresnak dira, baina museoan edota ikastetxean erabil daitezke” dio Kerejetak. “Zumakit dute izena maletok eta hiru dauzkagu, bakoitza gai bati buruzkoa da. Gai horiek lantzeko materiala dago male-

“Museoa ez da Tomas Zumalakarregirengan zentratzen, hori baino zabalagoa da. Perspektiba historiko bat badu eta XIX. mendeko Euskal Herria ezagutzeko aukera ematen du”



Xabier KEREJETA.

Zumalakarregi Museoko Difusio Zerbitzuko arduraduna



Lan-fitxa didaktikoak

Aipatu ditugun elementu hauekin batera Zumalakarregi museoak lan-fitxa didaktiko batzuk egin ditu hainbat gai lantzeko: “Industrializazioaren hasiera Euskal Herrian”, “Zumalakarregi eta lehen karlistaldia”, “Bi mundu aurrez aurre” eta “Gerra eta bakea Zumalakarregiren garaian”.

Lan-fitxa hauek museoan barna egingen den ibilbide bati loturik daude. “Museoa ikusi ahala galderak erantzuten joaten dira, eta horrela gaia sakonago lantzeko aukera dago. Ez da ikustea soilik, ikusitakoaren gainean lan bat egitea baizik. Erakustareto guztiak deskubritzen dituzte, lasai, bakoitzak bere erritmoan eta gehien interesatzen zaionari erreparatuz, baina beti ere eskatutako informazioaren bila” dio Kerejetak. DBH eta Batxilergoko ikasleentzat prestatuak daude bereziki, nahiz eta beste edonori ere erabiltzeko aukera eman. “Normalean museora etorri aurretik bidaltzen diegu materiala irakasleei. Guretzat oso garrantzitsua da hori, etorri aurretik zer topatuko duten jakiteko eta zenbait arazo praktikoko ekiditeko”.

“Gerra eta bakea Zumalakarregiren garaian”

Ibilbide hauetan berriena “Gerra eta bakea Zumalakarregiren garaian” izenekoa da. Berriena eta ezberdinena dela dio Kerejetak. “Bizpahiru urte generamatzan gerra eta bakearen gaiekin bueltaka, hori nola lan zitekeen pentsatuz. Gai konplexua da, baina lantzea beharrezkoa dena,aldi berean”.

Erabaki hori hartuta Zumalakarregi Museoko arduradunek Genevako Gurutze Gorri eta Ilargi Erdi Gorri Museoa, Grenobleko Erresistentzia Museoa eta Caengo Memoriala bisitatu zituzten. Historia museo hauetan gerra eta bakea nola aurkezten zituzten ikusi zuten, biolentziaren gaia nola planteatzen zuten. Kerejetak dio-

ten barruan. Horrela, maletak ikastetxera eramán eta han erabil ditzakete”. Gai hauen ingurukoak dira maletok:

1- Jantzien maleta: Zumalakarregiren garaiko pertsonak nola jantzen ziren jakiteko balio du eta era berean, garai hartako gizartea nolakoa zen ikusteko. Buruko jantzien erreproduzioak daude maletan (txapela, mantelina, apaizaren teila...). Horrekin batera, azal orijinalak dituzten liburuak daude eta barruan euskarazko zein gaztelaniazko testuen erreproduzioak dituzte. Zenbait grabaturen erreproduzioak ere topa daitezke.

2- Euskal Komunikabideak eta garraioak (1788-1865): Zumalakarregi jaio zen urtetik trenaren ezarri zen urtera arte zeuden komunikabideak ezagutzeko aukera ematen du maleta honek. Garai hartako irudi eta testuak modu arin batean jarrita daude eta orain egindako mapak ere bai.

3- XIX. mendea: Izen hori hartzen du hirugarren maletak. XIX. mendeko ondarea biltzen duen argazki erakusketa bat da eta hiru sailetan banatua dago: XIX. mendeko argazki zaharrak, Gipuzkoako XIX. mendeko ondarea eta Gipuzkoako hainbat ikastetxetako ikasleek bidalitako argazkiak. Argazki guztiak tauletan edo paneletan jarrita daude.

“Interesgarria da oso historia gure eguneroko errealitatearekin estuki loturik dagoela konturatzea eta beraz, geure buruak hobeki ulertzeko balio duela pentsatzea”

enez, “gerra museo tradizionalak, hein handi batean, historia militarra azaltzeko izan dira, non borroka handien eta horien gogoeta kritikorik gabeko diskurtso patriotikoak nagusi diren. Haietan, bakea bi gerren arteko garaia besterik ez da, beti ere garaienaren kontzeptuaren menpe”.

Bake museoak -bakerako museoak-, batez ere Bigarren Mundu Gerraz geroztik sortu ziren. Behingoz, izugarrikeria -kontzentrazio zelaia, bonba atomikoa- heroitasunaren gainean zegoen. “Sekula ez berriro” da lema berria.

Beraz, gerra aztertzen da, bere sorburuak, bilakaera, eta zentzu kritikoa erabiltzen da, gerra ez da jada fenomeno atmosferiko moduko bat, nola eta zergatik jakin gabe buru gainean erortzen zaigun zerbait.

Gerra eta bere inguruko ikerketa, zentzu kritikoa erabiliz gero, bakearen alde hezteko baliabide bikaina da. **Hau da museo modernoaren egitekoa: kontzientzia publikoa kitzikatzeke bake dinamika bat aurkeztea.**

Helburu horrekin prestatu dituzte lan-fitxak eta gainontzeko material guztia Zumalakarregi Museoa.

Gai hau lantzeko gogoeta eta hausnarketa egitera bultzatu nahi dira ikasleak eta horretara bideratuta dago lan-fitxa. “Lehen ere galdetzen genien zer pentsatzen zuten gerraz, baina beti ahozko erantzunak jasotzen genituen eta orain gehiago sakontzeko aukera dago lan-fitxekin”. Egia esan, badakigu ikasleentzat ez dela oso erraza; beraiek bilatu behar dute informazioa, gogoeta egitea eskatzen zaie... Interesgarria da oso historia gure eguneroko errealitatearekin estuki loturik dagoela eta beraz geure buruak hobeki ulertzeko balio duela pentsa dezaten”.

Lan-fitxa ibilbide bati loturik dago eta honen ardatzak honakoak dira:

- **Gudaren hasiera.** Oinarrizko bortizkeria: bestearen deskalifikazioa. Gatazka baten muina estrukturala





“Gerra eta bere inguruko ikerketa, zentzu kritikoa erabiliz gero, bakearen alde hezteko baliabide bikaina da”

“Museo moderno egiteko kontzientzia publiko kitzikatzeko bake dinamika bat aurkeztea da”

askotan gatazka koiunturaletan adierazten da. Ondorio bezala sortutako bortizkeriak, ordea, bortizkeria gehiago ekarri, jatorrizko arazoa gaiztotu eta soluziobidea zailago egin dezake.

Eztabaidagai: ankerkeria nagusi, noren mesedetan?

- **Gudaren mugak.** Bortizkeriaren mailak.

Militarizazioak bortizkeria neurtu eta arautu egiten du, helburuak lortzeko bitarteko bat da. Ankerkeria, bortizkeriaren alderik latzena apaltzearen truke (ez baldin bada buru hotzez erabiltzen, noski), gizarte zibila interes militarren menpe geratzen da.

Eztabaidagai: gizarte militarizatua baketsua izan daiteke?

- **Soluzio bila.** Hitzek armek baino

indar gehiago dutenean.

Bortizkeria gatazkaren azala baldin bada, mamira jo behar da. Beti al dago garbi zer den mamia eta zer azala? Informazioaren kontrola.

Eztabaidagai: bakearen alde dena da zilegi?

- **Bakea.** Sinboloak eta edukiak.

Nork egiten du bakea? Borondate oneko gizonak? Eta emakumeak? Altruismoa ala pragmatismoa, zein da bakebidea?

Eztabaidagai: barkatzea eta ahaztea bat al dira?

- **Bortizkeriaren ondorioak.** Biktima errugabeak.


Biktimak aukeratzeko kriterioak. Bi aldeek bortizkeria errugabeen kontra erabiltzen badute, biak berdin deskalkifikatzen al dira?

Eztabaidagai: non geratzen da herri-tarren protagonismoa gerretan?

- **Bortizkeriaren ondorioak.** Gudaren eta bakearen arteko mugak.

Bukatzeo, hasierako problemari heldu: bortizkeriak bortizkeria dakar, egoera ekonomiko-politiko-sozialen sintoma ez dena.

Eztabaidagai: si vis pacem para bellum? Bortizkeriarik gabeko bizitzarik badago?



Espainiako estatuko Hezkuntza helbideak Interneten



Pello ARAMENDI JAUREGI
Euskal Herriko Unibertsitatea
Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

Internet komunikazio sarearen bidez hezkuntza munduan lanean gabiltzanok aukera paregabea dugu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak aldatzeko. Teknologia berri hauek ikastetxe guztietara iristen diren unetik aldaketa nabarmenak ikusten ari gara eta ikusiko ditugu irakaskuntzaren atal nagusienetan: irakaslearen papera, curriculumak, ikaslearen aktibotasuna, materialak, klaseak antolatzeko era, ikastetxeak diseinatzeko moduak, ikaslearen eta irakaslearen lan denboraren banaketa, ikastetxeen arteko harremanak, eta abar.

Bizi garen garai aldakor hauetan teknologia berrien erronkari uko egi- tea jarrera iheskorra iruditzen zait. Hori dela eta, irakasleriarentzat edota ikasleentzat Interneten aurki daitezke- en zenbait helbide interesgarri aipa- tzea bururatu zait. Hona hemen nire bilduma:

1.- Ince Institutuko Nacional de la Calidad y evaluación (INCE)

<http://www.ince.mec.es>

MECen menpe dagoen erakundea da eta bere helburua hezkuntza sistema- ren kalitatea ebaluatzea da. Informazio gehiago: Info@ince.mec.es

2.- Consejo superior de investigaciones científicas (CSIC)

<http://www.csic.es>

Estatu espainiarreko ikerketa gune garrantzitsuenetariko bat da. Informa- zio gehiago: Webmaster@cti.csic.es

3.- Aprender a aprender

[http://pie.xtec.es/\(cdora- do/esp/index.htm](http://pie.xtec.es/(cdorado/esp/index.htm)

Orri honetan ikasteko ohitura eta tekniken inguruko informazioa ema- ten da: behaketa, analisiak, memoriza- zioa eta abar hobetzeko argibideak ematen ditu. Informazio gehiago: Cdorado@pie.xtec.es.

4.- Ministerio de educación y cultura (MEC)

<http://www.mec.es>

Datu base dezente eskaintzen ditu. Baliabideak, berrikuntzari buruzko

informazioa, ikerketak, doktorego tesiak, LOGSEri buruzko informazioa, bekak eta abar.

5.- Espainiako autisten federa- kuntza

<http://aut.ts.es>

Astero-astero gaiari buruzko albiste- ak azaltzen dira: ikerketak, programa berriak, artikulak eta abar. Autisten senideentzat ere aholkuak eskaintzen ditu. Informazio gehiago:

Anunez@ts.es.

6.- Heziketa berezia

[http://iceus.usc.es/necesidade- seducativasespeciais/default.htm](http://iceus.usc.es/necesidade-educativas/especiais/default.htm)

Hezkuntza Zientzietako Institutuak lortu dituen helbideen bilduma azal- tzen da: heziketa berezikoak, heziketa orokorra, integrazioari buruzkoak, autismoa, itsuak, dislexikoak...

7.- Logopedia online

[http://www.filnet.es/freeuser- softfilnet/logopedia](http://www.filnet.es/freeuser-softfilnet/logopedia)

Logopeda online programaren bidez galde-erantzunen prozesu batean sar daiteke. Informazio gehiago: emili.s@filnet.es.

8.- Centres de recursos educati- vos per defecientes auditi- us

[http://www.xtec.es/\(maguirre](http://www.xtec.es/(maguirre)

Logopeda eta ikasleentzat irekitako orrialdea da. Gorrak diren ikasleentzat eta hizkuntz arazoak dituztenentzat baliabideak, informazioa eta jarduerak eskaintzen ditu.



9.- Síndrome de Down elkarte

<http://www.uca.es/huesped/down>

Síndrome de Down delakoari buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzen du. Batez ere inguru familiarra, eskolarra eta lan eremuak jorrazten ditu pertsona hauen eskubideak aldarrikatuz.

Informazio gehiago: asociacion.sindromedown@uca.es

10.- Teknologia berrien inguruan

<http://www.uned.es/estudios/pfp/ntedu/curso.htm>

UNEDek antolatzen dituen teknologia berrien inguruko ikastaroen informazioa eskaintzen du.

11.- Confederación de centros de enseñanza

<http://www.cece.es>

Ikastaroak, albisteak, araudiak eta hezkuntza legediari buruzko informazioa, hitzarmenak, argibideak eta abar eskaintzen ditu.

12.- Halduen hezkuntzako elkarten federakuntza (FAEA)

<http://www.pangea.org/spie/faea>

Halduen hezkuntzako elkarten federazioak Espainiako estatu mailan funtzionatzen du. Bere helburua, noski, halduen hezkuntzaz informatzea eta bultzatzea da. Informazio gehiago: Faea@pangea.org.

13.- Gizarte-zientzietako ikasleen elkarte

[http://www.usal.es/\(deleccss](http://www.usal.es/(deleccss)

Salamankako Unibertsitateko elkarte da. Informazio gehiago lortzeko helbide hau kontsultatu:

Deleccss@gugu.usal.es

14.- Geologia eta ingurugiroa elkarte (AGEA)

<http://www.aser.com/agea/index.htm>

Bartzelonako elkarte da hau eta ingurugiroari buruzko materialak eskaintzen ditu.

15.- Matematika bultzatzeko ikasleen elkarte

<http://www2.adi.uam.es/colabora/ciencias/aem>

Madrilgo Unibertsitateko matematika bultzatzen duten ikasleen elkarteak arloari buruzko informazio orokorra emateaz gain, mundu guztiko web orrialdeen inguruko argibideak ematen ditu.

16.- Guraso elkarteak (CEAPA)

<http://www.interbook.net/colectivo/ceapa>

Erakunde honetan ikastetxe publiko eta kontzertatuen informazioa eskaintzen da: zein diren bere eginkizunak, helburuak, nola definitzen den, zer nolako jarduerak egiten diren eta abar adierazten da.

17.- Espainiako liburutegi nazionala

<http://www.bne.es>

Europako liburutegi garrantzitsuenetako bat da. Zer kontsulta daitekeen, nola sartu areto bakoitzean, era-

kundean dauden liburuak, izenburuak, maileguak eskuratzeko baldintzak, agiriak nola lortu eta abarri buruzko informazioa ematen du. Informazio gehiago: webmaster@bne.es

18.- Estatuko eta munduko liburutegien helbideak

<http://www.unileon.es/dp/abd/bibliot.htm>

Helbide hauen bidez beste liburutegiekin konexioak lortzen dira. Lau kategorietan sailkatzen dira: Espainiako estatuko liburutegi ez unibertsitarioak, unibertsitarioak, estatukoak eta mundukoak.

19.- DOCE

<http://www.eurosur.org/doce>

Elkarte honen helburua hezkuntzari buruzko dokumentazio gune bat osatzea da. Baliabide didaktikoak, informazioa eta abar eskaintzen dira ikerketa eta berrikuntza bultzatzeko asmoz.

Informazio gehiago: doce@eurosur.org.

20.- Infoestudios

<http://www1.bancoempleo.es/infoestudios/indez.html>

Bekak, unibertsitateak, karrerak, masterrak, graduondoko ikasketak, ikastaroak eta abarri buruzko informazioa eskaintzen da.



Haur Hezkuntza eta espezialistak

A dartzale aldizkariaren martxoko alean Haur Hezkuntzaren gaia harturik hainbat eztabaida eta lanerako proposamen irakur daitezke. Eztabaida zabaltzeko nahian dauden artikuluen artean Alazne Ziarsoloren “Haur Hezkuntza eta espezialistak” ikus daiteke. Hausnarketara bultzatzen gaituen gai interesgarria izanik, gure orrietara ekarri nahi izan dugu aipatu artikulua.

Haur Hezkuntzako lehen diseinu curricularrak agertu zirenean adin hauetan lanean denbora dezente generaman batzuk poztu egin ginen. Azkenean paperean idatzita geneukan etapa bezala zegokigun nortasun propioa, gure helburu eta estrategia bereziekin eta adin hauen ezaugarriekin bat zetozen puntuekin.

Aldi berean, Lehen Hezkuntzako diseinuak Haur Hezkuntzan markatzen ziren ildoak jarraitzen zituen koherentzia batekin. Kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak lantzeko nahiko modu globala zegoen oraindik.

Eremu edo **Arlo** handiez hitz egiten zen eta ez ikasgaiez. Eta modu batez, irakasle orokorrako bat perfilatzen zela zirudien, gutxiago zatitua eta tutore gehiago zena. Baina ez Haur Hezkuntzan soilik, baita Lehen Hezkuntza osoan ere.

Baina hein berean, “espezialista”ren irudia sartzen zen. Erreformaren zirriborroetan puntu hau oso eztabaidatua izan zela gogoratzen dut. Ideia zera zela esaten zen: etapa edo ziklo batean finkatutako irakasle taldean irakasle orokorrak izateaz gain, espezializazioen bat zutenak ere egotea. Espezialista hauek besteei gaiak prestakuntza gehiagoz programatzen lagundu ahal izango zieten.

Gauza ez zen espezialista gela bate-tik bestera ibiltzea bere arloa soilik irakasten, baizik eta tutore bakoitzak ahalik eta gai gehien irakastea talde baten laguntzarekin. Talde honetan bakoitzak bere jakituria espezializatua jarriko zuen.

Bestalde, espezialistek taldeen **antolaketa berriak** posible egingo zituzten, talde malguagoak, tailerrak eta eremu handietan lan egiteko gelak, non neska-mutilak batetik bestera ibi-

liko ziren. Hau da, oso ongi koordinatutako zenbait heldu egongo zirela esan nahi du hezkuntza prozesu bat aurrera eramaten, zeinak neska-mutil bakoitza bere osotasunean behatzea posible egingo zuen. Txikiak seguru sentitzeko modukoa izan beharko zuen, tutoretza erreferentzia argi batekin, baina aldi berean ekintza batzuk abiltasun handiagoak dituen irakasle-riarekin partekatzeak ematen duen aberastasunaz gozatuz.

Baina hauek “ideiak eta filosofiak” dira. Eguneroko praktika eta errealitatea oso ezberdina den beste bide bate-tik doaz.

Tutoreek pozez hartu zuten espezialisten sarrera Lehen Hezkuntzako lehen ziklotik hasita. Kasu batzuetan ez zen ikusi beste era batera antolatze-ko aukera bezala, baizik eta ordu libre-ak lortzeko eta ikasgai batzuen ardura (soinketa, musika, atzerriko hizkun-





tza, erlijioa...) uzteko baliabide bezala. Joera hau Haur Hezkuntzan ere zabalduz joan da.

Eta gaur egun, eskola konkretu batzuetan, badugu goizeko lehen ordu erdia laguntzaile baten eskuetan pasatzen duen bi, hiru edo lau urteko haur jasankor bat. Gero irakaslea sartzen da. Beranduago soin hezkuntzako espezialistak soinketa gelara eramaten du. Eguerdiaren zaintzaileekin jaten du. Zortea baldin badu, pertsona horien zaintzapean egingo du lo-kuluxka, baldin eta finkoak badira eta txandarik egiten ez badute. Arratsaldean tutoreak hartzen du eta ordu erdira erlijioa edo ingelesekoa etortzen da, baldin eta eskola hain interesgarria den eleaniztasun goiztiarreko programan sarturik badago. Eta azkenik, autobuseko arduraren duen pertsonak eramaten du.

Haur Hezkuntzako 23 lan orduen dekretuak ere eragina izan du gelan heldu berriak sartzearekin. Ziklo honetan tutoreek lehen aurreikusten ez ziren bi ordu librez gozatzeko aukera dute (bazen garaia). Baina hauen lekua betetzeko, zentro batzuetan, ordu libreak dituzten eta orduetgia bete behar duten espezialistak edo Lehen Hezkuntzako irakasleak jarri dituzte. Eta hauek gela batetik bestera ibiltzen dira ordu horiek betetzeko.

Pertsonen etengabeko aldaketa hauekin benetan zaila da praktika globalizatua, integratzailea eta gutxiago zati-tutakoa aurrera eramatea. Eta tutorea, irakasle orokorragoa, bere haurren prozesuen jabea eta diziplinarteko gidaria bihurtu beharrean, irakurketa eta idazketa edo matematika eta gizar-te-zientziak irakastera mugatzen da.

Gero eta gutxiago daki mutil honetaz edo neska hartaz, apenas ikusten baitu bere ekintzetan eta mugitzen den espazioetan. Are gehiago, oso zaila suertatzen da ikasketa prozesuak behar adinako denborarekin lantzea, ekintza behin eta berriz moztu behar baita hurrengo irakaslea datorrelako.

Neska-mutilak gero eta txikiagoak direnetik daude heldu, metodo eta asmo desberdinen etengabeko gorabeheren menpe. Gero eta gauza gehiago egin nahi ditugu, desberdinak eta presaka.

Gaur egun gure haurrek denetik egiten dute eskolan, baita euskal dantzak, gimnasia erritmikoa, futbitoia eta ehundaka tailer mota ere. Ekintza hauek beste "espezialista" batzuek irakasten dituzte, aisialdiko edo estraeskolarrerako espezialistek. Guraso Elkarteek kontratatzen dituzte hauek eta beste mundu batean mugitzen dira. Askotan gela barruan erabiltzen den metodologiarekin eta asmoeekin bat ez datozen erara egiten dituzte ekintzak.

Nik uste dut pertsona desberdinek ekintza ezberdinetan, talde malguetan, espezialistek... prozesu hezitzailetan aberastasun handia eskain dezaketela. Baina beti ere ongi koordinatuta eta beste era batera antolatuta daudenean. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloetan, horrela ez bada, atzera pausoa izan liteke. Zeren tutore batek edo bik programa osoaren ardura hartzeak ematen duen segurtasuna eta jarraikortasuna, ikasleen ezagutza sakonagoa eta koherentzia galtzeko arriskua baitago bestela.

Nahiz eta Haur Hezkuntzaz hitz egiten aritu, hausnarketa honek esko-

latze osorako balio du. Ez dago DBH bihurtu den buruhausgarria ikusi besterik. Gela batzuetan 11 pertsona desberdin sartzen dira.

Nola justifikatzen da hau guztia hezkuntza integrala eskaintzeko gure asmoekin? Zer jakin dezake bere ikasleak astean ordu bat edo bi ikusten dituen irakasleak ikasle horiei buruz? Zer jakin dezake ehundik gorako zerrenda duenean eta ikasgai txiki bat baino ez dienean irakasten?

Eskolak antolatzeko modu hau zabal-tzen doan heinean, gero eta zailagoa da atzera bueltatzea. Zergatik?

1- Sistema osoak gure orduetgia egokitzera bultzatzen gaitu eta hor gastatzen ditugu gure energiak: orduetgiak egokitzen, eskubideak bateragarri egiten, espezialitateak errespetatzen, hutsuneak betetzen, ordu libreak, ordezkapenak, lanaldi etenak eta abar. Ez dago pentsatzeko denborarik, eta are gutxiago koordinatzeko. Ia ezinezkoa da gela berean sartzen diren pertsona guztiak biltzea.

2- Irakasleok hobeto moldatzen gara oraingo sistemara eta puskatzen gero eta zailagoak diren "eskubideak" eta "inertziak" hartzen joaten gara poliki-poliki. Ez dugu gai askori erantzun beharra asumitzen eta ez gara ikasle talde baten edo biren tutoretzan zentratu eta inplikatzeko. Erosoago eta seguruago sentitzen gara gure jakituria murriztari lotuta eta behar den hainbestetan errepikatzen.

Hasieran, bazirudien Erreformatik Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloetako irakasle askoren lorpenak, jakituria eta kezkek babestu egingo zituela. Modu batera edo bestera egoerari buelta eman geniezaiokeela pentsatu genuen denboraz. Goiko mailetako irakasleei haur txikiekin lan egitean lortu genituen birtuteak eta jakituria erakusteko gai izango ginela uste genuen. Baina berriz ere goikoak dira egitura eta antolaketa eredu menperatzaileekin kutsatzen gaituztenak. Honek lortua genuen "ongi egin" horretatik hainbat gauzaren galtzea ekar diezaguke.

KONTSULTA TXOKOA

Zuen kezkak
planteatzeko eta
zuk ere bestean
zalantzak
argitzeko lekua
duzu.



Berriak

Bidal itzazu zure galderak edo zalantzak
irakasle euskaldunon aldizkarira

UZTAILA



27. Udako Ikastaroak. UEU

UEUk aurten ere ikastaro mordera prestatu du udarako bere hiru helburuak ahaztu gabe: Euskal Unibertsitatea egituratzeko baldintzak prestatzea, arlo zientifikoetan euskara lan-tresnatzat hartzea eta ikasle, irakasle eta profesionalen topagune bilakatzeko. Ohiko legez, ikastaroak Miarritzen eta Iruñean izanen dira.

Izena emateko epeak itxita egon arren, hona hemen inofimazio modura irakaskuntza arloarekin lotura gehien duten ikastaroen zerrenda:

Miarritzen uztailaren 5etik 9ra

- **Pedagogian:** "Gogo-erabilketa". Mikel Erramouspe. Uztailaren 8tik 9ra. 10 ordu, kreditu bat.

- **Psikologian:** "Programazio neurolinguistikoa, PNL. Isabel Millet. Uztailaren 5etik 9ra. 22 ordu, 2 kreditu.

Iruñean uztailaren 19tik 30era

- **Glotodidaktikan:** "Irakasleok ere material-sortzaile". Uztailaren 26tik 30era. 25 ordu, 2 kreditu.

- **Pedagogian:** "Ahozkotasuna eta hezi-kea: haur eta gazteen kasuak". Uztailaren

19tik 23ra. 23 ordu, 2 kreditu.

- Psikologian:

* "Psikeaz harantzago". Uztailaren 19tik 30era. 42 ordu, 4 kreditu.

* "Idazkera harmonikoak ahalbidetzen eta idazketa "txarrak" ulertzen hezkuntzan". Uztailaren 20tik 22ra. 15 ordu, 1'5 kreditu.

Informazio gehiago:

- Araban **Axular** liburudenda, Arka, 11 Gasteiz. Tel.: 945 13 25 06

- Bizkaian **UEU**, Concha Jenerala 25, 4 Bilbo. Tel.: 94 421 71 45 eta 94 421 46 79

- Gipuzkoan **BAGERA**, Aldamar eta Pasealeku berriaren izkina, Donostia.

Tel.: 943 43 12 28

- Nafarroan **Auzolan** liburudenda, Tudela 16, Iruñea. Tel.: 948 15 38 67

Karrikiri elkarte, Xabier kalea, 2 bis behera, Iruñea. Tel.: 948 22 25 89

- Iparraldean **UEU**, 11, J. Laffite karrika, Baiona. Tel.: 00 33 5 59 25 60 56

Zabal liburudenda, Pannecau 25, Baiona. Tel.: 00 33 5 59 25 43 90

EHUren XVII. Uda ikastaroak eta XI. Europar ikastaroak

Uztaila eta iraila bitartean 61 ikastaro eta bi jardunaldi izango dira EHUren aurtengo uda ikastaroetan. Donostian egingo dira guztiak, Miramar Jauregian, Kursaal Batzar Jauregian eta Gipuzkoa-Donostia Kutxa aretoetan.

Aurten irakasleriaren prestakuntzari arreta berezia eman nahi izan diote eta zeharkako zikloak antolatu ditu. Hauek dira horiei buruzko ikastaroak:

- **VIIIth international congress for the study of child language/Haur hizkuntzaren ikaskuntzarako VIII. nazioarteko biltzarra.**

Uztailaren 12/16

Itziar Idiazabal

Europar ikastaroa

Ikastaroaren hizkuntza ofizialak: euskara eta ingelesea bat-bateko itzulpenarekin.

- **Calidad en educación. Calidad en el aula.**

Uztailaren 1/3

Jose M^a Elola eta Robert Winter

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

- **Euskararen irakaskuntza eta teknologia berriak.**

Uztailaren 8/10

Joanba Bergara

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: euskara.

- **La enseñanza de la historia en el nuevo bachillerato.**

Uztailaren 12 eta 13an

Joseba Agirreazkuenaga eta Mikel Urquijo

Mintegiaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

- **Avances en tecnología educativa**

Uztailaren 20/23

Manuel Benito Gómez

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

- **Education: the point of view of the economists**

Uztailaren 22/24

Julio Grao eta José-Ginés Mora

Europar mintegia

Mintegiaren hizkuntza ofiziala: ingeleza.

- **Educación. Gestionar la diversidad**

Uztailaren 25/27

Clara Barreiro

Europar ikastaroa

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

- **Deporte y mejora de salud infantil**

Uztailaren 26 eta 27an

Pedro Manuel Ramos Calvo

Ikastaroaren hizkuntza ofiziala: gaztelera.

Matrikula epea: maiatzaren 3tik aurrera eta plaza hutsak gelditzen diren bitartean.

Informazio gehiago:

Ikastaroen idazkaritza

Miramar jauregia

Miraconcha pasealekua, 48

20007 Donostia

Telefonoa: 943 21 95 11

Faxa: 943 21 95 98

E-mail: suocvupv@su.ehu.es

Eremu urriko hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra

Abenduaren 1etik 3ra burutuko da aurtengo nazioarteko biltzar hau Bilboko Euskalduna Jauregian. Gai nagusia "Hizkuntza Biziberritze-ko Saioak" izango da. Lehenengo egunean Hizkuntza Biziberritzeko Saioetarako Eredu Teorikoak aztertuko dira, eta bigarren nahiz hirugarren egunetan saio praktikoak izango dira hizpide; Quebeceko, Kataluniako, Galeseko eta Euskal Herriko kasuak landuko dira, besteak beste.

Guztira bost hitzaldi nagusi, 10 komunikazio eta 30 poster eratu dira. Hizlari nagusien artean hauek izango dira:

- Arlo teorikoan Joshua Fishman (Yeshivako Unibertsitatea).

- Arlo praktikoan Lluís Jou (Kataluniako Generalitatea), Colin Williams (Cardiffeko Unibertsitatea), Xabier Aizpurua (Eusko Jaurlaritza) eta Jean-Calude Corbeil (Quebeceko Gobernu).

Nahi duenak bi saio hauetarako komunikazioak eta posterrak aurkez ditzake. Biltzarrean 45 minutuko 10 komunikazio eta 30 poster azalduko dira.

Komunikazioak eta posterrak aurkeztu nahi dituztenek uztailearen 15a baino lehen bidali beharko dute laburpena. Izena emateko epea ere egun berean amaitzen da.

Informazio gehiagorako:

Eusko Jaurlaritza
Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 81 10
Faxa: 945 01 95 35 eta 01 80 82
e-mail: hizkpol@ej-gv.es

"Neskak eta mutilak bideak eginez" jardunaldiak

Hezkuntzako profesionali zuzendutako hezkidetzari buruzko jardunaldiak dira Emakunde antolatutako hauek. Aurten helburua neska eta mutilen heziketa prestakuntza prozesuan bereziki garrantzitsuak diren bi arloen azterketa egitea da: Orientazioa eta Zientzia.

Jardunaldiak irailaren 6 eta 7an izango dira Gasteizko Europa Biltzar Aretoan.

Aurkeztuko diren hitzaldiak honakoak dira:

Irailaren 6an, "Orientabideak" gaiarekin:

- "Orientabideak haurtzarotik: sexu-generoaren sistema"

Begoña Martínez Domínguez. UPV/EHUko Didaktikoa eta Antolakuntza Saila.

- "Nola eragiten du generoak pertsona- eta gizarte-nortasunaren eraketan?"

Isabel Mendizabal Zabala. Leioako Bigarren Hezkuntzako Institutua.

- "Gizarte-antolamendua: errealitatea ezagutzeko eta interpretatzeko eredu"

Soledad Murillo de la Vega. Soziologia Saila. Salamancako Unibertsitatea.

- "Bereizketarik egitean ez duen erabakiak hartuz"

Antonia Sanchez Rodriguez. "Elige" programa. Almeriako EOE (Hezkuntza Orientabide Taldea).

- "Hezkidetzan orientatzeko baliabideak"

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkaria.

Irailaren 7an, "Zientziaren bestelako ikuspegia"

- "Zientzia, objektiboa eta unibertsala ala gizarte eta sinbolo eraketa?"

Mari Alvarez Lires. Donejakue Compostelako Unibertsitatea.

- "Emakumeok zientzia eta teknologia arloetan"

Nuria Solsona i Pairó. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.

- Esperientziak:

* **Unitate didaktikoa: Zientzia, Teknologia eta Generoa**

Arrate Mondragon Egaña eta Fermin Artola Zubillaga. Tolosako Laskorain ikastola.

* "Zientzia Ainoa auzunean"

Azuzena Arias Correa. Pontevedrako Irakasle Hezkuntza Zentroa (CEFO-COP).

* "Zientzia ere gona jantzita"

Paloma Alcalá Cortijo. Virgen de la Paloma DBHko ikastetxea.

Informazio gehiago:

Emakunde
Manuel Iradier, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 13 26 13

Faxa: 945 23 18 91

XXX Cursos de Expresión, Comunicación y Psicomotricidad

Bartzelonako Escola d'Expressió y Psicomotricitat-ek aurten ere udako ikastaroak antolatu ditu. Uztailearen 3tik 16ra bitartean burutuko dira. Izena emateko epea irekia dago eta ikastaroak hasten diren egunera arte luzatzen dira.

Ikastaroetan hainbat gai landuko dira eta bakoitzaren barruan ere aukera zabala dago. Gai orokorrak hauexek dira: Gorputz adierazpena, Adierazpen dramatiko-antzerkia, Hizkuntz adierazpena, Musika adierazpena-kantua, Dantza eta ohiturak, Dibertsitatea, heziketa koherentzia eta antolaketa,

Teknikak, metodoak, gorputz terapiak eta osasunaren prebentzioa, Talde-lana eta honen analisi, Arte-terapia, Berreziketa eta Psikomotritatea.

Argibide gehiagorako jo helbide honetara:

Escola Municipal d'Expressió y de Psicomotricitat

Cisell, 15, 2ª planta (esquina paseo de la Zona Franca)

08038 Barcelona

Tel.: 93 223 24 76 eta 93 223 07 57

Faxa: 93 223 26 38

Gazteentzako Narratibako II. "Apirila" Saria 2000

Ambito Cultural/El Corte Inglés eta Argitaletxe Elkartuak taldeak bigarren aldiz antolatu dute literatura lehiaketa hau. Argitaletxe Elkartuak taldean daudenak hauek dira: La Galera (Katalunia), Elkarlanean (Euskal Herria), Edicions Bromera (Valentzia), Tàndem Edicions (Valentzia), Galaxia (Galizia), Llibros del Peixe (Asturias) eta Xordica (Aragoi) daude. Gazteentzako literatur obren sorkuntza bultzatzeko asmoz bildu dira eta elkarrekin eratu dute Gazteentzako Narratibako II. "Apirila" Saria 2000.

Lehiaketa honetan parte hartzeko oinarri nagusienak hauek dira:

- Edozein herrialdeetako idazlek har dezake parte, 12 eta 16 urte bitarteko irakurleentzako lan jatorrizko eta argitaragabeekin.

- Lanak hizkuntza hauekoretan batean idatziak izan litezke: euskaraz, gaztelaniaz edo Argitaletxe Elkartuak osatzen duten argitaletxeetako jatorrizko lurraldeko edozein hizkuntzatan.

- Idazlanek ezingo dute 80 orri baino gutxiago ezta 150 baino gehiago izan.

- Saria hiru milioi pezetakoa izango da.

- Euskaraz lanak helbide honetara eta hiru ale bidali beharko dira: Elkarlanean, Portuete kalea 88 bis, 20018 Donostia.

Gaztelaniazkoak, berriz, zazpi ale eta helbide honetara: Ambito Cultural/El Corte Inglés, Hermosilla 112, 28009 Madrid.

Bestelako hizkuntzetan idatziak Argitaletxe Elkartuak taldeko hizkuntz eremu horretako argitaletxe egoitzara bidali behar dira, zazpi alerekin.

- Idazlan saritua Elkarlanean argitaletxeak kaleratuko du euskaraz, Argitaletxe Elkartuak taldeak gaztelaniaz eta taldeko argitaletxe bakoitzak bere hizkuntzan.

- Lanak aurkezteko epea 2000ko urtarrilaren 10ean amaitzen da. Saria 2000ko apirilaren 28an jakinaraziko da eta irabazlearen lanaren edizioa eta sari ematea 2000ko irailaren 26an egingo da literatur festa batean.

Kontsulta txokoa

Hik Hasiko artikuluen irakurketa egin ondoren irakasle batek egin didan galdera ondokoa izan da: zelan lor dezaket ikasle baten arreta hobetzea idazkeraren bidez?

1.- Jarraian irudikatzen dizkizuedan ariketak egiteko esan, egunero bost minutuz (jai egunak barne). Batez ere puntuak zentratuta, puntu forman (ez makilak ez eta borobiltxoak) egin behar ditu. Arreta lantzeko ariketak direla azaldu behar zaio pertsonari; ez gara arretarekin jaiotzen, landu ahala lortzen joaten garen abiltasun bat dela argi utzi.

2.- Goian aipatutako ariketak egin ostean, etxerako lan guztiak puntu eta apartek zainduz burutzen ahaleginduko da. Bazterkiak ere HIK HASIko 37. zenbakiko artikuluko irizpideen arabera mantentzen saia dadila (hilabetez). Lan hauek egin ondoren, ondo dator begiratu bat ematea, gauzatu denaren "feedback" eskaintzea.

3.- Arreta gaitasuna testuaren antolaketara orokor egokian ez ezik, "i" eta "j"ren puntu zentratuetan ere antzematen denez, berauek zaintzea komeni da. Gisa honetako testuak idatz ditzakete puntuak puntu egiteko eta erdi inguruan

jartzeko:

- "Momentu honetako nire helburua arreta hobetzea da (buruari birak ematen gelditzea edo unean unekoa egitea). Nire izaeraren ezaugarri hau hobetzeko, idazkerako "i" eta "j"ren puntuetako borobiltxoak egiteari utziko diot. "i" eta "j" letren puntuak puntu egingo ditut, makila bertikalen gaineko aldean jarriko, erdi inguruan, ez oso goian eta ez oso behean, zentratuta. Adibideak:

- "Gaurtik aurrera arreta jartzen ahaleginduko naiz. Arreta jartzen badut, gauza gehiagoz ohartuko naiz eta denbora behar bezala aprobetxatuko dut. Irakurtzen ari baldin banajiz, irakurtzen ari tuko naiz, entzuten nagoenean, entzuten soilik egongo naiz eta nagoen tokian "hemen eta orainean" bizitzen ahaleginduko naiz".

"Nik nahi izanez gero arretaren gaitasuna lor dezaket, nire esku dago. Zelan? "i" eta "j" letren puntuak puntu egingez, puntu soilak, makilen gaineko aldean jarriko, erdi inguruan, ez oso goian eta ez oso behean. Nahi izatea ahal izatearen oinarritzko urratsa da eta lanari gogoz ekingo diot".

- "Arreta ez da berezkoa, landu eta

gero lortzen den dohain bat baizik. Dohain honen berezitasuna zera da: inguruan ditudan estimulu guztietatik bat aukeratu eta denbora batez berari kasu egiten egotea. Nahi izanez gero, nire gauzekin soilik egon naiteke. Burua argi-argi dudalarik, arretaren gaitasuna lor dezaket. Nire esku dago. Zelan? "i" eta "j" letren puntuak makilen gaineko aldean jarriko. Aurrera!"

4.- "i" eta "j" dituzten hitz berriak gogoratu eta idatz ditzatela.

Oharra: "i" eta "j"ak testuetan maskatu edo itzali, hots, bereizi.



Irune IBARRA
Psikologoa eta grafologoa

Eraldaketaren plangintza

Oscar VIGUERA

Lasarte-Oriako PATeko zuzendaria



G

Hirugarren artikulu honekin eskolako eraldaketari buruzko lan-sortari amaiera emango diogu.

Aurrekoetan, eskolan bizi ditugun eraldaketen ezaugarriak aztertzea izan dugu helburu. Horietan ikusi dugunez, eraldaketa oso prozesu konplexua da, esanahi eta alderdi anitzekoa, eta eragile ezberdinen arteko hartu-emanak nabariak dira.

Gero eta zailagoa bihurtzen da eraldaketa bat intuizioz soilik kudeatzea. Konplexutasun hori nolabait menperatzeko ezinbestekoa dugu

bitarteko batzuez baliatzea. Bitarteko hauetatik nagusietako bat plangintza da. Nire ustez, nekez lor daiteke konplexutasun hori kudeatzea plangintza sinple batekin.

Berrikusketa bat

Orain artean eraldaketa plangintzarako erabili izan ditugun tresnen berrikusketa bat beharrezkoa dela pentsatzen dut. Azken urteotan ikastetxeetako plangintza orokorra egiteko tresna batzuk erabili izan dira. Horietatik ezagunenak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP), Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP), Gelako Plangintza (GP) eta Urteko Plana (UP) izan dira. Horien helburua eguneroko ekintzen antolaketa eta kudeaketa erraztea da.

Tamalez, zenbait kasutan betebeharrak administratibo huts bihurtu dira.

Eraldaketari dagokionez, ez dugu gidari "ofizialik" izan, baina administratibotik eskaintako deialdien bidez hainbat proiektu bideratu dira. Horietatik bi izan dira deialdi nagusiak: Ikastetxeen Prestakuntza eta Berrikuntzarako Proiektuak. Urte hauetan izen eta ezaugarri ezberdinak izan dituzte: fokalizatua, PIF, Ikastetxea eta Ikastetxeko Prestakuntza... Horiei administrazioak egindako beste eskaintzak gehitu behar dizkiegu: Osasunaren Hezkuntza suspertzeko proiektuak, Ingurugiroko proiektuak, Eleaniztasuna, Hizkuntz Normakuntza, Sexu eta Afektibitatea Hezkuntzan...

Administrazioak egindako deial-



diak ez dira berez plangintzarako tresnak, baina hainbat ikastetxek bere eraldaketa prozesuak programatzeko izan duten erreferentzia nagusia edo bakarra bihurtu dira. Proiektuok izan dira, urte askotan zehar, ikastetxeetan eraldaketa programatikoak burutzeko bitarteko nagusiak.

Gaiaren aldetik proiektuak mota askotakoak izan dira, baina oro har, proiektuen egitura orokorra nahiko antzekoa izan da ikastetxe gehienetan.


Deialdi horietan proiektuak eratze-ko agertzen ziren eskemak indarrean daude gaur egun ere. Urteen poderioz, eskema hori oso barneratuta gelditu da zentroetan eta askotan ia mekanikoki erabiltzen da egiten diren plangintzetan. Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen dut ohiko eskema horren ezaugarriak aztertzea.

Ezaugarrien artean nire ustez aipagarrienak direnak aztertuko ditut:

1. Linealtasuna

Kontzeptu hori azaltzeko irudikapen grafikoz baliatuko gara. (1. eskema)

1. eskema



Hau izan da proiektuak diseinatzeko askotan erabilitako eskema klasikoak. Linealtasun ezaugarri hori garbi ikus daiteke. Beharrak (justifikazioa) helburu zehatzak definitzera eramaten gaitu, hauetatik edukiak ondorioztatzen dira eta lortzeko erabiliko dugun metodologian eragiten du. Helburuak lortu diren ala ez jakiteko ebaluazioa programatuko da.

Logika simple honek bere abantailak ditu. Hasieran, ikastetxeek proiektuak lantzeko ohiturarik ez zutenean, eskema erraz hau lagungarria izan zen. Jarraipide argiak ematen ditu eta proiektuaren barruko koherentzia bermatzen du.

Hala ere, eskema linealek nekez azal dezakete errealitatearen konplexutasuna. Zenbait kasutan oraindik eskema baliogarria izan daiteke, baina beste zenbait kasutan eraldaketaren errealitatea azaltzeko motzestia geratzen zaigu. Jarraian, nire usteetan dituen hutsune batzuk zerrendatuko ditut:

a) Proiektuak ez dira beti puntu berdinetik hasten. Markatzen den sekuentzia (justifikazioa, helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa) ez da zertan orden horretan egon behar.

b) Proposatzen diren urratsak ez dira hain erraz gertatzen. Adibidez, beharretatik helburuetara proposatzen den urratsa ez da automatikoa. Behar zehatz batetik helburu ezberdinetara irits daiteke.

Beste aldetik, beharrak eta helburuak oso maila ezberdinetako errealitateak dira. Beharrak askotan intuitiboak dira, mugagaitzak, esperientzia mailan gertatutakoak, esanahi anitzekoak. Helburuak, berriz, zehatzagoak, logikoak eta arrazionalak, esanahi bakarrekoak... Ikusten denez, bi maila hauen arteko lotura ez da erraza eta zuzena eta goian azaldutako eskeman ez da urrats hau emateko jarraipiderik ematen. Are gehiago, urrats hori zuzena dela pentsarazi dezake.

c) Linealtasun honek ebaluazioaren prozesua gidatzeko erabilera eragozten du. Eskema lineal horretan ebaluazioaren helmuga nagusia helburuen lorpen maila frogatzea da. Horrek ez du esan nahi bukaeran soilik egin behar denik, tartean ere ebaluazioak egin baitaitezke, baina funtzio berdina mantenduz, hots, martxan dagoen prozesua eta emaitzak hasieratik jarritako helburuekin bat datozen ala ez jakiteko. Horren atzean, jakina, proiektuaren kontzeptu zehatz bat dago. Hala ere, ni ez nator guztiz bat horrekin.

2. Zatiketa eta isolamendua

Proiektuak, azken finean, bitartekoak besterik ez dira. Baina, ikastetxe batzuetan oso zaila suertatu da proiektu ezberdinen arteko lotura aurkitzea. Proiektuek beren dinamika autonomoa jarraitu dute, autonomia beha-

rezkoa baitute, baina askotan ikastetxearen eraldaketaren plangintza proiektu ezberdinen “puzzle” bihurtzen da. Hori ez litzateke txarra izango baldin eta norbaitek jakingo balu zer den puzzle horretan irudikatu nahi dena.

Askotan errealitate hori makro-proiektuen bitartez konpondu nahi izan da. Hasieran proiektu ezberdinak zirenak proiektu batean metatzen dira. Baina horrek eskema osoa desorekatzten du eta bere logika galtzen da.

3. Denbora murrirtza

Agian administrazioaren deialdien eragina dela eta, proiektuen iraupena nahiko mugiezina izan da. Neurri handi batean honako egitura jarraitu dute. (1. taula)

Moldaketa batzuk tarteko, hau da ikastetxeetan garatzen diren proiektuen ehuneko handi batek jarraitzen duen eskema tenporala. Proiektuak ezberdinak dira eta prozesu oso ezberdinak eraman ditzakete. Zergatik, bada, moldatu denak denbora-eskema berdinera?

4. Malgutasun eza

Proiektua erabat lotuta geratzen da lehenengo urratsetik. Eskema lineal honetan plangintzaren atalean prozesu osoa markatzen da. Jakina, prozesuan zehar aldaketak jazo daitezke, baina horiek “moldaketak” izango dira. Beraz, proiektuak hasieratik geratzen dira erabat definituta.


Eraldaketa plangintza berri baten proposamena

Orain arte, gaur egun erabiltzen diren plangintzaren ezaugarri nagusiak eta horietatik ondorioztatzen diren zenbait arazo aipatu dugu. Gauzak horrela, aukera gehiagoren beharra nabaria da eta proposamen bat egitera noa.

1. taula

Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua
Hasiera	Garapena	Garapena	1. Ebaluaketa	Garapena	Garapena	2. Ebaluaketa	Garapena	3. Ebaluaketa Bukaera	Memoria Plangintza		

2. eskema



Proposamena alor ezberdinetan egituratzen da. Lehenik, plangintzaren zentzua berrikusiko dugu eta horretan nik egindako aukera azalduko dut. Ondoren, gainontzeko alorrak ikusiko ditugu (plangintzarako tresnak eta hauen zentzua eta ezaugarriak).

1. Eraldaketaren plangintzaren xedea


Eraldaketen plangintzaren zentzuaz galdetzea denbora alferrik galdetzea dela iruditu arren norbaiti, ez da beti argi izan azkenengo urteotan. Egon badaude ere, deialdi ofizialetatik kanpo oso zaila da epe luzerako proiektuen plangintzak aurkitzea. Ez da harrizkoa aurkitzen diren gehienek deialdi ofizialetan agertzen diren jarraipideak estu segitzea. Askotan plangintza horien helburua deialdi horretan parte hartzea da, eraldaketa prozesua gidatzaile izatea baino.

Une batean ikastetxeen eraldaketa prozesuak antolatzeko lagungarria izan zitekeena, betebeharrak administratibo huts bilakatu denaren susmoa dut. Alde batetik, tresnek errealitateak sortzen zituen arazoei ez die erantzun nahikorik eman, eta bestetik, guk ez dugu beste tresnarik bilatzen asmatu.

Ikastetxeetan urteotan zehar martxan jarri diren eraldaketak ordenatzeko beharra dago. Gauza asko egin dira eta egiten ari dira, baina egiten dena testuinguru zabalago eta ulergarriago batean kokatzeko premia dago.

Askotan plangintza ekintzaren aintzindari gisa ulertu da. Plangintza

ekintza baino lehenago zegoen eta ekintzaren garapena baldintzatzen zuen erabat.



Gure proposamenak ez du plangintza modu honetan ulertzen. Plangintza ez dago jardueraren aurrean, ez dago prozesuaren hasieran soilik, prozesu osoan baizik. Plangintza jarduerarekin batera doa momentu guztietan eta elkarri eragiten diote. (2.eskema)

Plangintzak, prozesu osoan zehar laguntzen digu, eta beraz, ezin da zerbait finkoa eta aldaezina izan. Plangintzak errealitatea ulertzen eta ekintzak aurreikusten lagundu behar digu, baina errealitatea, lehenengo artikuluetan aztertu dugunez, ez da finkoa. Gure jardueren eta beste eraginaren ondorioz etengabe aldatzen da plangintza. Beraz, ezin da prozesuaren hasieran bukatutzat jo, bestela prozesua gidatzeko gaitasuna galdu egingo luke eta.

Plangintza mota honek baditu bere arriskuak eta alde txarrak. Dударik gabe, malgutasun askoz handiagoa du,



baina ziurgabetasun maila ere areagotu egiten da. Prozesuaren haria galtzeko arriskua handiagoa da eta horrek arreta eta jarraipen hurbilagoa eskatzen digu. Plangintzarako tresnek ere konplexuagoak izan behar dute eta honek, formakuntza eta esperientzia eskatzen ditu. Baina, merezi du hortan sartzeak eta plangintza mota honen ahalmenak arakatzeak.


Ez da plangintza bat beste batengatik ordezkatzea proposatzen. Zenbait kasutan bata egokiagoa gerta liteke bestea baino. Aukera ezberdina eskaintzen da beste plangintzarekin erantzuten ez ziren arazoei irtenbide bat bilatzeko.

2. Plangintzaren tresnak

Plangintzaren tresnen artean hiru maila bereiztuko ditugu. Maila bakoitza bestearekin lotuta dago orokortasun/zehaztasunaren arabera. (1. irudia)

Lehen mailako tresnak orokorrenak dira, eta normalean, erdi edo epe luzerako plangintzetan erabiltzen dira. Plangintza horiek bigarren mailako

1. irudia




tresnen bitartez garatu behar dira. Hauek lehen mailakoak baino zehatzagoak dira eta epe motzekoak, oro har. Hirugarren mailakoak bigarren mailako plangintzak zehazten dituzte eta epe motzekoak dira.

Gure proposamenean maila bakoitzeko tresna bana aurkeztuko dugu. Hona hemen proposatzen ditugun tresnak. (2. irudia)

Ikastetxeko Hobekuntza Plana (IHP) lehen mailako tresna dugu. Plan hori

2. irudia



Proiektuen bitartez zehaztuko dugu eta Proiektuek ekintzak izango dituzte osagai nagusi bezala. Ondo ulertu behar dugu hemen proposatzen diren tresnak ez direla bakarrak eta beste batzuk erabil daitezkeela. Hala ere, aurkezten diren tresnen arteko hartu-emanak argitu nahi ditut sistemaren koherentzia agerian uzteko.

Tresna bakoitza banan-banan aztertzen hasi aurretik, tresna ezberdinen arteko lotura azaltzen duen eskema bat aurkezteari egoki deritzot. (3. eskema)

Eskema hau argazki finko bezala aurkezten da, oro har, tresna ezberdinen arteko harreman nagusiak azaltzeko. Errealitatean eskema horrek ez du mugiezina izan behar, askoz dinami-koagoa baizik.

IHP (Ikastetxeko Hobe-kuntza Plana)

Xedea:

Erdi eta epe luzerako plangintza tresna da. Beraz, 3-5 urterako ikaste-

txean garapen alor nagusiak ezartzea du helburu. Ikastetxean hurrengo 3-5 urteetan programatuko diren eraldaketek zerikusi handia izango dute tresna honetan ezarritako alorrekin. Kontuz! Ez da hurrengo urteetan ikastetxean hobekuntzarako egingo diren ekintzen programazio zehatza. Datozen ikasturteetan baliabideen erabilpenean lehen-tasunak erabakitzeke erreferentziarik garrantzitsuena izango da.

Egitura:

IHPan atal ezberdinak bereiz daitezke. Lehenengo eta behin, ezinbestekoa dugu ikastetxearen diagnosian oinarritzea. Hau egina ez badago, hori izango da lehen egitekoa. Arreta handia jarri behar da diagnosian beratu izango baita gure ondorengo erabakien oinarria eta okertzen bagara, prozesu oso baldintzatuta gera daiteke.

Diagnosiaren ondoren, ikastetxean agertutako beharren eta nahien arabera, urte horretan jorratu behar diren

erronka nagusiak azaldu behar dira bigarren atalean. Hori prognosia deritzo. Beraz, hurrengo 3-5 urteetan lehen-tasuna izango duten garapen alor-ak izendatuko dira.


Hirugarren atalean lehen-tasuna duten garapen alor hauei ekin ahal izateko martxan jar daitezkeen proiektuen aurreikuspena zehaztuko da. Aurreikuspen hori ez da inolaz ere programazio finkoa eta zehatza, prozesuan zehazten joango den plangintza-aren hasiera baizik. Une honetan egokienak iruditzen zaizkigun proiektuak jasoko dira, jakinda, beti ere, proiektu horien bilakaera ezin dela aurreikusi.

Laugarren puntuari erabiliko diren baliabideen aurreikuspena egingo da. Oso zehatza izan behar ez badu ere, baliabideen azterketak gure aurreikuspenetan erreagoak izaten lagunduko digu.

Ezaugarriak:

Ondo ulertu behar da IHP ez dela

3. eskema





behin betirako txosten bat. Bizirik dago, nolabait, eta prozesuan zehar garatzen joango da.

Goian aipatu atal guztiek ez dute bide berdina garatuko. Diagnosiak, adibidez, hasieran lan handia eskatuko digu. Bere ondorioak prozesu osoan islatuko dira, baina ez da egunero berrikusi behar den atala. Behin egin ondoren eta, ondo egina baldin badago, nahikoa izango da prozesuan eman beharreko urratsak gidatzeko.

Gauza bera esan behar da garapen alorrei buruz.

Proiektuen aurreikuspenari dagokionez, aldiz, helburua ez da datorren 3-5 urteetan zehar zein proiektu garatuko diren argi izatea. Ezarritako garapen alorretan gara daitezken hainbat proiektu aipa daitezke aukera moduan, baina horiek beren bilakaera izango dute prozesuan zehar eta hori errespetatu egin beharko dugu.

Beraz, IHP irekita geratuko da eta prozesuan zehar hartu beharreko erabakiak hartzeko ezinbesteko tresna izango dugu. Egingo diren ekintzei zentzua emango die eta garatzen diren proiektuei lotura eta koherentzia. IHPk ez du prozesua erabat lotu behar, bere lekukoa izan baik. IHPren txostenean prozesuan zehar hartzen diren erabakirik garrantzitsuenak eta bere arrazoiak jasoko dira: zergatik aukeratzen den proiektu bat, zergatik bukatzen den, nolako aldaketak ematen diren, zein diren zailtasun nagusiak...

Epea (3-5 urtekoa) amaitu ondoren, prozesuaren historia laburra jasoa izango dugu IHPren txostenean.

Hurrengo eskeman IHParen atal nagusiak agertzen dira. (4. eskema)

Proiektuak

Xedea:

Proiektua da eraldaketaren prozesuan oinarritzko ale edo unitatea. Proiektuarekin, une batean gauden egoera batetik, ustez hobea den beste egoera batera pasatzeari ekiten zaio. Hori da proiektuaren funtsa.

Ezaugarriak:

Proiektuaren ezaugarriak aipagarrienak malgutasuna eta irekia izatea dira nire ustetan. Proiektua ez da egingo denaren programa zehatza. Proiektuaren

hasieran ez dugu egingo diren ekintza guztien diseinua erabat argi izan beharrik. Ez ditugu, beraz, artikulua honen hasieran aipatu ditugun ohiko proiektuetan agertzen diren osagaiak zehaztu behar: justifikazioa, helburuak, edukia...

Proiektu bat hasia erabakitzen dugunean baldintza bakarra bete behar dugu: nondik hasten garen eta nora goazen argi izatea. Bidaia nolakoa izango den ez dugu zehaztu behar. Proiektua ez dago hasieratik egina, prozesuan zehar joaten da garatzen. Egin behar diren egokitzapenak ez dira hasierako proiektuaren moldaketak, proiektua bera baik.

Zehaztasun falta honek malguagoak izateko aukera ematen digu alde batetik, baina bestetik, prozesuaren jarraipen zuzenagoa egitera behartzen gaitu, momentu bakoitzean non gauden eta nora goazen jakin dezagun. Zenbait kasutan prozesuaren hasieran proiektuaren iraunpena zehaztea ere oso zaila izango da. Era berean, proiektuak edozein momentuan sor eta buka daitezke, ez dute ikasturteko eskemara moldatu beharrik. Beraz, mota askotako proiektuak gara daitezke eta iraupen ezberdinetakoak. (2. taula)

Egitura:

Proiektuaren egitura lau atal nagusi bereiztuko ditugu. Lau atal hauek lotura zuzena dute elkarrekin.

1. Lan eremua zehaztea


Lehenengo, urrats honetan landu behar den gaia zehaztu beharko da. Gaia zehazteko hainbat modu daude baina, batez ere, arloa eta aplikazio eremua erabiltzen dira. Adibidez: (3. taula)

Gehienetan, lan eremu hau proiektuaren izenburua bilakatu ohi da. Askotan atal honi ez zaio garrantzi handirik ematen, baina eremu hori gaizki definitzeak prozesuaren ibilera oztopatzen du.

2. Hasierako egoera definitzea

Atal honetan, aurretik zehaztutako lan-eremu horretan nola gauden deskribatuko dugu. Zenbat eta zehatzagoa izan deskribapena, orduan eta errazago gara-

4. eskema



2. taula

	Irai	Urria	Azar	Aben	Urta	Otsa	Mart	Apir	Maia	Ekai	Uzta	Abuz
A Proiektua												
B Proiektua												
D Proiektua											→	→

tuko dira hurrengo urratsak.

Deskribapen hori egiteko eskema eta tresna ezberdinak erabil daitezke. (5. eskema)

3. Nahi den egoeraren irudikapena

Proiektuaren bitartez lortu nahi dugun egoeraren deskribapena da. Proiektua eraldaketaren unitatea da eta hasierako eta bukaerako egoerak definitzea ezinbestekoa dugu. Bi egoeren arteko aldeak eraldaketaren zentzua emango digu.

Atal honen zailtasuna, nire ustez, irudikapen honen adostasunean datza. Gaur egun dugun egoeraren deskribapena adostea erraza ez bada, nahi genukeen egoera adostea askoz ere zailagoa gerta liteke. Ez gara ari dagoenaz, egon behar lukeenaz baizik. Bakoitzaren itxaropenak, lehentasunak, beharrak, balioak... tartean sartzen dira.

Irudikapen amankomun hori eraikitze denbora hartzeak merezi du. Jakina, ez dugu hasieratik ondo definitua eta adostua izan behar, hori prozesua aurrera joan ahala zehaztuko baita.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar ditugu zenbait alderdi. Aurretik oso esperientzia luzerik ez badago, bi egoera hauen arteko aldeak ez du oso zabala izan behar. Lortu nahi den egoera gure egungo egoeratik oso urrun badago, eragozpen batzuk ekar diezazkioke prozesuari: prozesua luzatu egiten da eta nekeak eta etsipenak errazago sor daitezke, gure eskuetatik kanpo geratzen diren

gauzak planteatu daitezke, baliabide nahikorik gabe gera gintezke eta abar. Hobe da eraldaketa hobeto mailakatzea.

Ez dugu azken egoeraren irudikapen argi bat izan arte itxaron behar proiektuarekin hasteko. Esan dugunez, irudikapen hau prozesuan zehar joango da argitzen. Eta hau da, hain zuzen ere, proiektuaren egoera ebaluatzeko irizpide egokia: irudikapen hori gero eta argiago badugu, prozesua ondo doa; bestela, agian proiektua berraztertu beharko da.

4. Ekintzen proposamena

Egoera batetik bestera igarotzeko bideak ezberdinak izan daitezke. Zenbait kasutan hasieratik oso garbi izango ditugu eman beharreko urratsak. Esperientziak erakutsi dit gehienetan bidea ez dagoela egina eta ibiliz egiten saiatu behar dugula. Kasu hauetan alferriki izango da hasieratik egingo diren ekintzen programaketa zehatza egitea. Alde batetik, ez gaude ziur ekintza batek prozesuan izan dezakeen eragina eta ondorioak zein izango diren. Bestetik, prozesuan zehar egoerak aldatzen joango dira, eta prozesu konplexuetan oso zaila da aurreikustea noraino alda daitezken edo gerta daitezken aldaketa guztiak.

Horrenbestez, argi dago ez ditugula egingo diren ekintza guztiak programatu behar proiektua hasi baino lehen. Programatuta genituen ekintza batzuk ere ken edo alda daitezke prozesuan. Dena den, proiektua ez da hasiko ekintza bat abian

jartzen ez bada. Ekintza bat bukatzen denean eta proiektua ez bada bukatutzat hartzen, hurrengo ekintza zein izango den erabaki behar da, ekintzen artean denbora gehiegi utzi gabe. (6. eskema)

Ekintzak

Xedekak eta ezaugarriak

Eraldaketa prozesuaren azken zehaztapen mailan kokatzen dira. Proiektu baten barruan kokatu behar dira. Proiektu gehienek ekintza bat baino gehiago dute, baina egon badaude ekintza bakarrekoak ere.

Proiektuan ez bezala, ekintzarekin hasi baino lehen argi izan behar dugu zer den egin nahi duguna eta zertarako. Beraz, alde aurretik programatuak egon behar dute eta ahalik eta zehatzen aurrekusiak. Normalean, ekintza hauek ez dira denbora luzekoak izan behar. Lehen aipatu dugunez, denbora luzea denean baldintzak asko alda daitezke eta aurretik planifikatutakoak zentzua gal dezake. Prozesu luzeak aurreikusten direnean, hobe da ekintza motzetan banatzea.

Mota askotako ekintzak egon daitezke eta sailkatzeko irizpide ezberdinak erabil daitezke. Hona hemen horietako batzuk. (7. eskema)

Ikastaroak, bisitak, hitzaldiak, kongresuak, jardunaldiak, lan-taldeak, bilerak,

5. eskema

Hasierako egoeraren deskribapena


Zer ari gara egiten gai honetan?
Zenbat denbora igarotzen dugu gai hau lantzen?
Zein ekintza egiten ditugu?
Zergatik egiten ditugu?
Nolako emaitzak jasotzen dira?
Zein bitarteko erabiltzen ditugu?
Zein dira zailtasun nagusiak?

3. taula

	Arloa	Aplikazio eremua
A Proiektua	Irakurketa-idazketa lantzeko metodologia	Haur hezkuntzako 3, 4 eta 5 urtekoekin
B Proiektua	Ebaluazioa gutxienezko irizpideak	Haur eta Lehen H.ko zikloetan
D Proiektua	Gelako gatazken ebazpena	Curriculum desberdinetako geletan



6. eskema



7. eskema



batzordeak, ikasleekin jarduerak eta abar aipa daitezke.

Egitura:

Ekintzaren egitura nahiko zehatza da eta lau atal ditu: espero diren ondorioak, beharrezkoak diren bitartekoak, erabiliko den denbora eta aurreikusten diren lan-estrategiak.

a) Ondorioak: ez dute inolaz ere orokorrak izan behar. Epe motz batean lor daitezkenak izan behar dute eta lortu diren ala ez egiaztatzen errazak direnak. Mota honetakoak izan daitezke: “zikloan irakurketa-idazketa lantzeko erabiltzen diren bitartekoak zerrendatzea” edo “lehen hezkuntzan osasuna lantzeko gai ezberdinen programaketa egitea”.

Ekintza egin baino ezin dira ondorio guztiak aurreikusi, baina argi geratu behar da zein diren bilatzen ditugunak. Ekintza hasi baino lehen denek jakin behar dute zertarako egiten den eta zer espero den ekintza horretatik.

b) Bitartekoak: aurreikusi egin behar dira. Logikoa iruditu arren, ez da beti betetzen. Ekintza bat egiteko beharrezkoak diren bitartekorik ez badago, bere eraginkortasuna arriskuan jar daiteke eta ahaleginak alferrikakoak izan.

c) Denbora: oso ondo zehaztuko da. Denbora da, hain zuzen ere, prozesu hauetan erabiltzen den baliabiderik garrantzitsuena eta preziatuena. Ekintza bat proposatzen denean denbora oso eragile garrantzitsua da. Ekintzak ondorio zehatzak bilatzen ditue-

nez, erabiliko den denbora aurreikusten eta zehazten saiatu beharko da. Eta denbora horri gero eutsi, noski.

d) Lan-estrategiak: bakarra ala anitzak izan daitezke. Erabili daitezkeen lan-estrategien artean hauek aipa daitezke: banakako hausnarketa, taldeko eztabaida, azalpenak, informazio jasoketa, galdeketa, informazio idatzien azterketa... (8. eskema)


Etorkizunerako desafioko

Artikulu honetan eraldaketaren plangintzarako proposamen bat aurkeztu da. Plangintza gure ikastetxeetan jazozen diren eraldaketak hobeto ulertzeko eta kudeatzeko tresna garrantzitsua da. Baina plangintza horrek eraldaketa ulertzen dugun erarekin bat etorri behar du.


Era berean, eraldaketaren fenomenoaz aztertzen saiatu gara. Fenomeno konplexua eta ikuspuntu anitzetatik azter dezakegun horietarikoa. Baina argi dago gurekin egongo dela denbora luzez eta berarekin bizitzen ikasi beharko dugula. Hurrengo urteetan eraldaketa hori onartu, ulertu eta kudeatzen jakin beharko dute erakundeek.

Hurrengo ikasturtean zenbait ikastetxetan plangintza proposamen hau esperimentatzen saiatuko gara, eta honek datu eta argibide batzuk emango dizkigulakoan gaude. Dena den, gai honekin kezkatuta zaudeten guztiok pozik jarriko gara harremanetan.

8. eskema



IRUDIEN BIDEZKO NIRE HIZTEGIA



TTARTTALO



- 1.000 hitz
- 20 gai
- 800 marrazki koloretan
- gaiei buruzko igarkizun eta jokoak



**Txiki eta helduentzat.
Edonoren jakin-mina asetzeko
moduko liburua.**



ELKARLANEAN

**Txikitik handira
udan irakurtzeko
apropos-aproposak dira.**

Euskal Herriko Baliabide Pedagogikoen **GIDA**

600 pezeta
24 libera

hik hasi

EUSKAL HERRIKO
BALIABIDE
PEDAGOGIKOEN



1999ko udazkena

Irailean osatua eta berritua